



Europako Konstituzioa: urrats berri baten argi-ilunak

(European Constitution: lights and shadows of a new step)



BENGOETXEA CABALLERO, Joxerramon

Europar Justizia Auzitegiko letratua
Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea
Eusko Ikaskuntzako *Europa-Euskalerrria* taldearen arduraduna
Miramar jauregia. Mirakontxa 48
20007 Donostia
jr_bengoetxea@euskalnet.net

BIBLID [1137-1951 (2004), 12; 5-20]

Sarrera eguna: 2003.10.17
Onarpen eguna: 2004.05.10

Europar Kontseiluaren aginduz, Europaren Gerorako Konbentzioak 2003ko uztailean aurkezturiko Konstituzio europarraren egitasmoaren alderdi nagusiak aztertzen dira lan honetan, eta, halaber, Eusko Ikaskuntzako *Europa-Euskalerrria* lantaldeak landu eta proposaturiko Europar Konstituzioaren zirriborroa.

Giltza hitzak: Europako Konstituzioa. Europar Konbentzioa. Eusko Ikaskuntza.

El presente trabajo analiza el proyecto de Tratado por el que se instituye una Constitución para Europa, presentada por la Convención sobre el futuro de Europa en julio de 2003, en respuesta al mandato del Consejo Europeo. Ahonda, asimismo, en el borrador de la Constitución Europea propuesto por el grupo de trabajo Europa-Euskalerrria de Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos.

Palabras clave: Constitución europea. Convención europea. Sociedad de Estudios Vascos.

Ce travail analyse le projet de Traité pour lequel a été instituée une Constitution pour l'Europe, présentée par la Convention sur l'avenir de l'Europe en juillet 2003, en réponse au mandat du Conseil Européen. De même, il étudie soigneusement le projet de la Constitution Européenne proposé par le groupe de travail Europa-Euskalerrria de la Société d'Etudes Basques.

Mots clés: Constitution européenne. Convention européenne. Société d'Etudes Basques.

1. Sarrera. 2. Europaren batasun ibilbide ezezaguna. 3. Europarako Konstituzioa eratzen duen Itunaren proiektua: 3.1. Argiguneak. 3.2. Gerizpeak. 3.3. Ilundiak. 4. Eusko Ikaskuntzaren Federazio Europarraren Konstituzioa. 5. Itxierako gogoetak: diskurtsoen birbegirada.

1. Sarrera

Nire ekarpen honetan, Europaren Gerorako Konbentzioak adostutako Konstituzioa aurkezteko asmoa dut, hiru atal ezberdinetan. Lehenengoan, Konbentzioaren lana testuinguru zabalago batean kokatuko dut, Europar integrazio prozesuaren baitan. Bigarren atalean, Konbentzioak berak adostu duen Konstituzioaren alderdi eta ezaugarri nagusiak azalduko ditut, eta, hirugarren atalean, Eusko Ikaskuntzak proposatu duen Konstituzioaren ezaugarri nagusiak Gobernu arteko Konferentziak (GAK) adostu duen Konstituzioaren ezaugarriekin alderatuko ditut, batez ere lurraldeen parte-hartzearen galderaren inguruan.

2. Europaren batasun ibilbide ezezaguna

Europar integrazio ibilbideak, Europar Erkidegoak sortu zirenetik, nahiko ibilera isil eta apala baina sendoa eraman du hainbait urtetan, 1986an Europar Agiri Bakuna edo Bateratua onartu zen arte¹. Urte hartan Espainia eta Portugal sartu ziren, eta, bi urte lehenago, 1984an, Europar Parlamentuan Spinelli-ren proiektua eztabaidatu zen. Ordura arte emandako urratsik aipagarrienak, Britainia Handia, Danimarka eta Irlandaren sarrera 1973an eta Greziarena 1980an izan ziren, eta, horrekin batera, Europar Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak Zuzenbide europarrari benetako sistema juridiko autonomo eta nagusi baten ezaugarriak eta ia-ia konstituzio nortasuna eman izana. Federico Mancini² zenak garbi utzi zuen Auzitegiaren konstituziogile ezaugarri hori.

1989. urtearen inguruan, errotikako aldaketak gertatu ziren. Ekialdeko Europa askatasun bidetik abiatu zen, eta Sobiet Batasun ohiean irekiera (*glasnost*) eta aldaketa (*perestroika*) bilakatu ziren mundu berriko giltzak. Handik gutxira, tentsio bortitz batean, baina odolik isuri gabe, autodeterminazio eskubidean oinarriturik, Alemania birbatu egin zen, Txekoslovakia erdibitu egin zen,

eta Baltiar errepublikek independentzia lortu zuten. Jugoslavia ohiean, tamalez, garapena beselakoa izan zen.

Europar Batasunak, Delors-en gidaritzapean, barne merkatua harmonizatzeko paketea prestatu zuen. Handik oso gutxira, 1992. urteko Gobernu arteko Konferentziaren jomuga izan zen Maastrichteko Itunean, Europar Batasuna jaio zen, eta, honekin batera, hiru zutabetako eraikuntza konplexua: lehenbiziko zutabea, Europar Ekonomia Erkidegoa zena Europar Erkidego bilakatu zen, hiru berrikuntza interesgarriekin (hiritartasuna, moneta eta ekonomia batasuna, eta lurraldeetako batzordea); bigarren zutabea, kanpo arazoetako eta segurtasuneko politika komuna aurreikusten zen; eta, hirugarrenean, justizia eta barne arazoetako elkarlana ere diseinatzen zen. Handik gutxira, Austria, Suedia eta Finlandia kide-tu ziren, gardentasuna, demokrazia parte-hartzailea eta antzeko balio demokratikoak ekarri.

Hauen sarrerarekin batera, Giza Eskubideen aldeko aupada eta sistemaren hobekuntza zehatzak jaso zituen Europar Batasunak, eta aldaketa hauek Amsterdamgo Itunera zera-man Gobernu arteko Konferentzian erabaki ziren. Giza Eskubideen aupada hori beste funtsezko erabaki batekin biribildu zen gainera, gizarte zibilari hitza ematean Europar Batasuneko giza eskubideen katalogoa prestatzerakoan. Horretarako, konbentzio zabal bat eratu zen, Europar Parlamentuetako ordezkariekin, Estatu kideetako Parlamentuetako ordezkariekin, Batzordearekin eta gizarte zibilaren ordezkariekin. Emaiza, Gutuna, oso interesgarria izan zen, baina oihartzun eskasekoa tamalez. Prozesu horrek, gainera, zilegitasuna ematen zion Batasunari, askotan hiritarregandik oso urrunduta ikusten baitzen.

Gutuna adosteko prozesua berritzailea izan zen, ordura arte European itunen mailan emandako aurrerapauso guztiak Gobernu arteko konferentzietan gertatzen baitziren. Gutun hau Nizako Itunean gailurtutako Gobernu arteko Konferentziak berretsi zuen, aldaketarik gabe. Baina horixe izan zen Nizaren aurrerapauso bakarra, beste arlo guztietan, ekialdeko Estatu berriak hartzeko zein babesteko, eta sistema instituzionala egokitzeko hartu beharrezko neurri guztiak hartzeke geratu ziren. Egia da Estatu kide batzuek lortu izan zituztela hor, baina Nizan oro har nagusitutako sentimendua bestelakoa izan zen; alegia, prozedura horrek ez zuela gehiegi balio aurrerantzean aldaketa sakonak egiteko, Gobernuak epe motzeko ikusmira zutelako eta

1. Bateratua deitzen da lehenbiziko aldiz Europar Ekonomia Erkidegoa eratzen duen Itunaren aldaketa eta Elkarlan Politikoa aurreratu zuen Ituna agiri bakar batean diseinatu eta onartu zirelako.

2. Ikus *Argomenti per uno stato europeo*, helbide honetan kontsultagai: http://www.lex.unict.it/anno_accademico/dirlavoro/comparato/lettere/mancini.pdf

interes nazionalista zehatzak defendatzen zituzte-lako. Bestetik, prozedura bera oso hertsia, ezkutu, alhenduta eta demokrazia eskasekoa zela ikusi zen. Horregatik, 2001eko abenduan, Laekengo gailurrean, Nizan konpontzeke geratu ziren hondarrei erantzun bat emateko eta, batez ere, ekialdeko kide berrien sarrerak suposatuko zuen eraldaketa sakonari erantzun egoki eta funtzional bat emateko, Konbentzioa osatzeko deialdia egin zen. Europaren geroa bermatu nahi zen, ordura arteko prozedurekin eta sistema instituzionalarekin Europar Batasunak ezin izango baitzuen behar bezala funtzionatu: beto eskubideak non-nahi, erabakiak hartzeko benetako aukerarik ez, Batzorde erraldoia, eskuduntzen banaketa ulergaitza, etab.

Konbentzio berriari ez zitzaion zuzenean halako Konstituzio bat egiterik eskatu, baizik eta galdera horiei proposamenak egiteko. Baina, azkenean, Konbentzioak lortu zuen ordezkari-tza maila altuagatik (europarlamentariak, Estatu kide-etako eta Estatu kide gaietako Parlamentu eta gobernuetako ordezkariak, batzordekideak, lurraldeetako batzordeko; ekonomia eta gizarte kontseiluko eta ombudsman-eko behatzaileak), huraxe gidatzeko Frantziak lortutako presidentek egindako maniobregatik, eta Estatu kideek ordezkari izendatutako pertsonen mailagatik (ministroak askotan), Konbentzioa asanblada konstituziogile modukotzat jo zen. Hain zuzen ere Konbentzio horren lana da hurrengo atalean aurkeztuko dudana, baina esan beharra dago lan hori Gobernu arteko Konferentziak berriki onartu duela, aldaketa txiki batzuk egin ondoren. Izan ere, hiritar europarren aurrean oso gaizki ikusiko litza-teke Konbentzioak itxitako adostasun eta akordioak ukatzea. Beraz, prozesu demokratikoago eta parte-hartzaileago baten fruituak zilegitasun handiagoa izan du gobernuburuen bilkurak baino.

Aurkeztu dudana bidezidorrik gabeko ibilbi-de honetan, dinamika eta tirabira asko ikusten dira, baina horietako bat aipatu nahiko nuke. Tirabira horren mutur batean Gobernu arteko formula dago, Nazioarteko Zuzenbide klasikoarena, Estatu betoa eta ahobatasuna babesten ditue-na. Beste muturrean, berriz, Estatugainekotasuna, erakunde komunek hartu-tako erabakien nagusitasuna eta prozedura demokratikoen eremua. Gobernu arteko Konferentzia da lehenengoaren adierazpen gar-biena: Estatu batek betoa jartzen badu, ez dago akordiorik. Bigarren indarraren adierazpen gisa, Batzordearen eta Justizia Auzitegiaren emaitzak, Kontseiluan gehiengoz hartutako erabakiak, eta, noski Europarlamentuak Kontseiluarekin batera egindako legegintza dauzkagu. Interes bereziak babestu nahi dituztenean, Estatu kideek ahobata-suna defenditzen dute, baina, bestalde, ohartzen dira arlo askotan ahobatasunari eutsiz gero, Europar Batasunean ez litzatekeela benetako erabakirik hartuko, eta barne merkatua bera gel-diarazteko arriskua legokeela.

Horregatik, kosta ahala kosta, integrazio prozesua aurrera egitera beharturik dago. Joera geldiezina da. 2001eko irailaren 11ko atentatuek, Irakeko krisiak eta Ekialde Hurbileko gatazkak fro-gatu dute Europak kanpo arazoetan koherentzia behar duela, eta, ahobatasunari eutsiz gero, era-bakirik eza ziurtatuta dago. Beste arloetan ere berdin (zerga politikan, defentsan, egiturazko inbertsioetan). Bizikleta bat bezalakoa da integra-zio prozesua: gelditzen bada, jauzi egiten dela, beti mugimenduan egon behar duela. Eta bizikleta bat atzerantz mugitzea arrunt zaila da.

3. Europarako Konstituzioa eratzen duen Itunaren proiektua

Konbentzioak prestatutako Konstituzioa, balorapen baten bitartez aztertuko dugu. Aukera hau, noski, nahiko ideologikoa izango da, nahi eta nahi ez, baina puntu bakoitzean balorapenaren giltzak edo irizpideak emango ditut. Jakina; irakur-lea, bere irizpide propioak dituenek, beste balora-pen batera iritsiko da.

Hiru azpiataletan banatu dut balorapena: lehen-lehenik, argiguneak edo baikor izateko argu-dioak ematen dizkidaten aldaketak azalduko ditut; bigarren, gerizpeak edo zalantza handiak sortzen dizkidatenak; eta, azkenik, ilundiak edo bereziki kri-tiko izateko motiboak ematen dizkidaten alderdiak.

3.1. Argiguneak

- Zutabeak desagertu egiten direla: Maastricht-eko hiru Europar Erkidegoek (alegia, batetik, Europar Erkidegoak berak, bestetik, Ikatzaren eta Altzairuaren Europar Erkidegoak, 2002. urtean desagertu egin zenak, eta, azkenik, Atomo Energiaren Europar Erkidegoak) lehen zuta-bea osatzen zuten, Estatu gainekoa. Horri bigarren zutabe bat gehitu zitzaion, kanpo arazoetako eta segurtasun defentsako politikarena, Gobernu arte-koa, eta baita hirugarren Gobernu arteko zutabe bat ere, justizia eta barne arazoetarako elkarlanarena. Lehenengo zutabea Zuzenbide Komunitarioa egi-ten zen, eta sistema juridiko bat osatu zen Justizia Auzitegiaren interpretazio eta jurisdikziopean. Beste biak, aldiz, Gobernuen arteko elkarlan soila ziren, asmo onez osatuak baina baliozkotasun juridikorik gabe ia. Konstituzio berrian, ordea, hiru zutabeak batu egiten dira.

- Nortasun juridikoa ematen zaiola Europar Batasunari: Maastrichten sortutako Europar Batasunak ez zeukan existentzia edo nortasun juridikorik, baina oraingoan espresuki aitortzen zaizkio nortasuna eta horrek dakarren gaitasun juridikoa, batez ere ekintza juridikoak egiteko, eta, bereziki, nazioarte arloan gauzatuko da.

- Giza Eskubideen Gutuna Konstituzioan sartzen dela: Nizako Gobernu arteko Konferentzian

Gutunari onespina eman bazitzaion ere, ez zitzaion indar, inbokagarritasun edo lotura juridikorik eman. Oraingoan, ordean, baliozkotasuna eta eragina aitortzen zaizkio. Bere inbokagarritasun edo aplikagarritasun zehatza beste kontu bat da, aitortzen diren eskubideak nahiko orokorrak, anbiguoak eta, hainbatetan, mugatuak direlako, eta Europar batasuneko ekintzetarako bakarrik.

- Araugintza prozeduretan, elkar-erabakitze sistema bilakatu dela ohiko legegintza prozedura. Hemendik aurrera, legegintza prozedura erraztu eta samurtu egingo da: Batzordeak arauzko proposamena egingo du, eta Parlamentuak eta Kontseiluak elkarrekin erabakiko dute. Kontseiluak arlo batzuetan bakarrik erabakiko du, % 5eko kasuetan, Europarlamentua kontsultatu ondoren. Batzordeak lehendik zeukan proposamenak aurkezteko monopolioa gordeko du. Hala ere, hemendik aurrera europarlamentarien talde batek eta Kontseiluak ere eskatu ahal izango diote Batzordeari arauzko proposamen bat aurkezteko. Bestalde, Kontseilua araugintza arloan formakuntza berezipean arituko da, bere eztabaidak gardenak eta irekiak izango direlako. Gainera, hiritarren ekimena aurreikusten da, milioi bat sinadura bildu eta gero.

- Atzerri politikak, orain arte, bi zailtasun izan ditu: batetik, Gobernu arteko ezaugarriak nagusitu direla eta erabakiak aho batez hartu behar zirela —eta alderdi honetan nolabaiteko aurrerapauso motzak eman dira—, eta, bestetik, disfuntzioak sor zitezkeela kanpoko merkataritza eta truke politikaren eta atzerri politikaren artean. Hemen bai aurrerapauso edo koherentzia gehiago ekar dezakeela Atzerri ministroaren figurak. Hau, gainera, Batzordeko presidenteordea izanen da, Europar Kontseiluko bileretan hartuko du parte, eta bost urterako aukeratuko da —batzordekide izanik—. Honek egonkortasuna eman diezaioke nahikoa aldaketa eta sartu-irten izango dituen Europar Kontseiluari, zeinaren presidentea bi urte eta erdirako aukeratuko den. Ikusi egin behar Atzerri ministro berriak beharrezko laguntza diplomatikoa izango duen Estatu kideetako gorputz diplomatikoak koordinatuz.

- Arau motak eta tresnak sinpleagoak izango direla. Tresna berri bat agertzen da, lege europarra alegia —oraingo araudi orokorraren antzekoa—, eta direktiba edo artezaraia, aldiz, lege marko bilakatzen da, harmonizaziorako tresna izaki. Arau partikularrak araudietan gauzatuko dira, eta arau indibidualak erabakietan. Hauek dira baliozkotasun juridikoa daukaten tresnak. Batzordeari delegazioa eman diezaioke, legeak eta lege markoak egin ditzan, eta delegazioaren baldintza eta mugak kontrolatuko dituzte Kontseiluak, Europarlamentuak eta, azken finean, Justizia Auzitegiak.

- Europarlamentuak Batzordea oso-osorik —Kanpo ministroa barne— onartzeko edo arbuizteko aukera duela.

- Gehiengo bereziz bozkatzeko bidea federatagoa eta demokratikagoa dela: Kontseiluan, Estatu kideen %55 gehi biztanleen %65 behar dira erabakiak hartzeko.

- Justizia eta barne arazoetarako erabaki gehienak gehiengo bereziz hartzen direla Kontseiluan, eta tresna berdina erabiltzen direla —ez, lehen bezala, akzioak, gomendioak, jarrera komunak, etab.—, eta Eurojust zein Europol-erako oinarri berria aurreikusten dela.

3.2. Gerizpeak

- Eskuduntzen banaketan, eskuduntzak argitu egiten direla nolabait. Hain zuzen ere, honetan eman zuen denborarik gehien Konbentzioak. Eraitza, egia esan, nahiko garbia da, nahiz eta banaketa bera hain arrakastatsua ez izan: eskuduntza batzuk eskusiboak dira, beste batzuk elkarbanatuak, eta Estatu kideei, beren ardurapeko gai batzuetan, koordinazio eskuduntzak ere ematen zaizkie.

- Derrigorrezko gastuen eta derrigorrezko ez diren gastuen arteko bereizketa desagertu egiten dela, eta, beraz, Europarlamentuak aurrekontuen gaineko boterea hartzen duela Kontseiluarekin batera, elkar-erabakitze moduan, baina, urte anitzeko aurrekontuetarako kontseiluak aho batez erabakiko luke.

- Estatu kideetako parlamentuek parte hartzen dutela sistema berrian. Hau nahiko garapen demokratikoa izan daiteke, batez ere parlamentu horiek —eta baita lurraldeetako parlamentuak ere— europar gaietan sartzen badira, hauen ekarpenak baliosuak izan baitaitezke. Hasiera batean proposatu zen Asanblada Nagusi bat egitea Estatu kideetako parlamentarien eta europarlamentarien artean, urtean behin edo bilduko litzatekeena, baina azkenean proposamen honek ez zuen beharrezko bultzada jaso.

- Subsidiaritate printzipioaren kontrolerako, batez ere Estatu kideetako parlamentuak inplikatu dira, bi mekanismoren bidez: batetik, ohar goiztiar, lege edo lege marko bat onartu baino lehen, Estatu kideetako parlamentariak ohartaraz dezakete ez dela subsidiaritate printzipioa errespetatzen; eta, bestalde, behin araua onartuta dagoenean, Justizia Auzitegiak jo ahal izango dute. Formula berbera aitortzen zaie lurraldeei Lurraldeetako Batzordearen bitartez.

- Europar Zuzenbidearen nagusitasuna garbi adierazten dela, orain arte jurisprudentziaren printzipioa izandakoa. Garrantzitsua da Estatu kide guztiek jakitea Europar Zuzenbidea beren Zuzenbideen gainean dagoela. Baina akaso ez da beharrezkoa hain modu gogorean adieraztea.

- Batzordeko presidentea Europarlamentuak aukeratzen duela, eta ez, orain arte bezala, Estatu kideetako gobernuburuak.

Zentzu honetan, aurrerapauso demokratikoa eman da, baina zergatik ez da zuzenean hiritarren eskutik aukeratzen hauteskunde zuzenetan?

- Urteaskotariko Egitarau Orokorra onartze-ko Parlamentuaren onespena behar dela, zeinak orain arte ez baitzuen parterik hartzen. Baina egitaraua ez du Parlamentuak berak diseinatzeko, Batzordeak eta Kontseiluak baizik.

- Kontseiluan gehiengo bereziaren bozketa 30 erabaki-arlo berrietara zabaldu dela, baina ez da erabat nagusitzen; horra hor zerga arloan.

- Kritika ugari jaso duen gaia, Batzordearen eraketa berria da: hamabost kide gehienez (Estatu kideen txandakako hamahiru *batzordekide-oso*, gehi presidentea eta Atzerri ministroa), eta beste Estatu kideek *sasi-batzordekide* bana izatea –hiru izen proposatuko dituzte, eta Batzordeko presidentek aukeratu du horien artean—. Hamabost kideko Batzordea eraginkorragoa izan daiteke; hogeita hamar kideko batzorde batek ez luke, agian, halako koordinaziorik izango. Bestalde, batzordekideek ez dute Estatu kidea ezertarako ordezkatu behar; beraz, ez da ulertzen zergatik egon beharko lukeen Estatu kide bakoitzeko batzordekide banak. Baina formulak ere ez du zentzu gehiegirik: zer egin behar du karterarik gabeko eta erabakitze ahalmenik gabeko batzordekide batek? Azkenean onartu den Itunean, Estatu kide kopuruaren 2/3 Komisio kide egongo dira 2014tik aurrera, eta, ordura arte, Estatu kide bakoitzeko komisario bana.

- Justizia Auzitegiaren kontrola arlo berrietara zabaldu dela, eta, batez ere, justizia eta barne arazoetako –immigrazioa ere bai– elkarlanera. Baina ez da arlo guztietara helduko, ez baita zabaltzen zigor arloko, justiziazko edo ordena publikoa inplikatzeko duten polizia koordinazio arazoetara. Atzerri politikan ere ia ez da inon azaltzen Justizia Auzitegiaren kontrola.

- Abiadura anitza, geometria aldakorra edo elkarlan egituratua onartzen direla, Amsterdamen ere onartzen zirenak: Estatu kide batzuk urrunago edo sakonago joan daitezke elkarlanean.

- Eurofiskalaren figura sortzeko bidea zabaldu dela. Baina ez da sortu, Estatu kide batzuek –Italiak batez ere– eragozpen handiak dituztelako.

3.3. Ilundiak

- Kanpo eta segurtasun politika komunean oso erabaki gutxi hartzen dela gehiengo bereziko bozketaz, gehienak aho batez hartzen direlako. Zentzu honetan, atzerri politikan blokeoak ziurtatuta daude.

- Baliabide propioen inguruan ez dela aldatetik sortzen, eta oraindik ere Kontseiluan betoa mantentzen dela. Zerga arazoetan edota egituraz-

ko fondoen erreforma egiteko 25 Estatu kideen onespena izatea ez da erraza izango.

- Beste gai eztabaidagarri bat, Europar Kontseiluko presidentearen figura da. Bi urte eta erdirako aukeratzen da, bere funtzioak ez daude oso zehaztuta, eta, batzarburua izateaz gain, exekutiboburua izatera iris daiteke. Gainera, bere bere baldintzak eta taldea ez dira oso ongi zehazten. Horretaz aparte, Estatu kideek galdu egingo dute orain arte izan duten aukera on bat: hainbat urtetan behin Europaren zuzendaritza izatekoa, hain zuzen ere, “Europazale” sentimendua lantzen zuena.

- Konbentzioaren Konstituzioan ezertarako aldatzen ez direnak, moneta batasunerako irizpideak dira, baina GAK samurtzea ekarri du. Askoren ustez –Batzordeko presidentea barne–, oso gogor eta zurrunka dira irizpide horiek, eta krisialdian ez dute gastu publikoaren bitartez ekonomia suspertzeko joko askorik ematen –batez ere gehieneko %3ko defizitaren arauaz–. Gobernantza ekonomikoan, beraz, ez da aurrerapausorik eman, eta gai honetarako propio sortutako Konbentzioko lantaldea *impass*-ean geratu zen eztabaida ideologiko gogorren poderioz. Horrela desfase handia sortuko da: Lisboako gailurrean Estatu kideetako buruek helburu handi nahi batzuk ezarri zituzten, baina Konbentzioan ez dira adostu helburu horiek lortzeko beharrezko diren tresnak eta prozedurak, European ez dagoe-lako gobernantza ekonomikorik, moneta gobernantza baizik. Gobernu arteko Konferentziak benetako ekarpen ona egin nahi badu, Konbentzioaren tirabira ideologikoen gaindik, gobernantza ekonomikoan aurrerapausoak ematea du hobekien; bestela, buruzagi horiek finkutako Lisboako asmoak barregarri geratuko dira. Hezkuntza eta prestakuntza sistemetan, gizarteratze eta laguntza sozialaren arloan, pentsioen eta gizarte segurantzaren sistemetan, immigrazioan eta abarretan Koordinatze Metodo Irekia delakoak balio dezake, *benchmarking* zehatza, helburu jakinak eta kide-ebaluaketa garatua gauzatzen badira –enplegu arloan gertatzen den bezala–. Bestela, jai daukate.

- Eta aukera galduetan deigarriena, agian, izan daiteke lurraldeen egoera ez dela Konbentzioan benetan mugitu. Konbentzioan bertan ez zegoen lurraldeen benetako ordezkapenik, McCormick europarlamentaria kenduta –eta hau konbentziokide-ordea zen–. Lurraldeetako Batzordeak begirale estatusa besterik ez zuen lortu. Ez zen lantalderik sortu lurraldeen parte-hartzeaz aritzeko, eta subsidiaritate lantaldean hasiera batean zeuden asmo onak ezerezean gelditu ziren, Europarlamentuko osoko bilkurak eta Konbentzioko osoko bilkurak atzera bota zituztelako. Emandako urrats bakarra subsidiaritatearen kontrolaren inguruan izan da, Lurraldeetako Batzordeak ohartarazteko eta Justizia Auzitegira jotzeko aukera izango duelako. Baina organo hori ez da ezertarako aldatzen.

4. Eusko Ikaskuntzaren Federazio Europarraren Konstituzioa

Eusko Ikaskuntzan *Europa-Euskalerrria* izeneko lantaldea daukagu, europar gaiak Zuzenbide eta politikaren aldetik aztertzen dituenak. Lantalde honek Konbentzioari buruzko jardunaldi batzuk prestatu zituen Donostian eta Bruselan gaiak aritzeko³, eta, horren ondorioz, Europako Konstituzioaren zirriborro bat proposatu zuen, kideen ekarpenekin hobetsia⁴. Zirriborro hori Eusko Ikaskuntzako organoei pasa zitzaion, proposamena Eusko Ikaskuntza osoarena egin zezaten, eta 2003ko apirilean onartu egin zuen, prozesuan jasotako emendakinekin.

Proposamen hau euskal erakundeei aurkeztu zitzaion, eta orain proposamena bera Konbentzioak onartutako testuarekin alderatzea dagoenez, bigarren eztabaida fase bati ekin dakioke, Gobernu arteko Konferentziaren aurrean euskal gizarte zibileko erakunde garrantzitsu honen izenean proposamena egiteko.

Hona hemen Eusko Ikaskuntzaren proposamenaren ezaugarri nagusiak, eta Konbentzioaren Konstituzioarekiko dituen bereizgarriak:

- Hiritarren eskubideen inguruan, Eusko Ikaskuntzaren proposamenak europar hiritarrei Estatu kideetako parlamentuetarako eta parlamentu lurraldetarretarako hauteskundeetan parte hartu ahal izateko eskubide ematen die —ez bakarrik udaletarako eta Europarlamenturako hauteskundeetan—.
- Lurraldeen parte-hartzea benetan aurreikusten du. Horretarako, legezko eskuduntzak izango dituen lurraldeen ganbera berezi bat eratzen du Lurraldeetako Batzordean bertan. Ganbera honek legegintza prozesuan hartuko luke parte, eta baita lurraldeen eskuduntza eskusiboko gaien koordinazioan ere —gobernatze eta elkarlanerako metodo irekiaren bitartez—.
- Defentsa arloan eskuduntza osoa ematen zaio Europari. Atzerri Politikaren inguruan talde diplomatikoa sortuko litzateke, Gobernu arteko Konferentziak gehienez *Berlin* + deritzonetik haratago joan eta 2003ko udazkenean Blair, Schröder eta Chirac-ek egindako adie-

razpenetatik abiatuz Europako defentsan erabakitze arlo propioa sakondu eta garatzeko (trope mugimenduak erabaki eta gauzatzeko aukerak sortuz).

- Eusko Ikaskuntzak Federazio Europarra proposatzen du; alegia, Estatu kideek Europari pasako diote beren jatorrizko burujabetza —era sinboliko hutsean gordeta—, eta Federazio horren zilegitasun iturriak hiritarrak, herriak eta hauen subiranotasuna daukaten Estatuak izango dira. Europako Estatuak eta Lurraldeen Federazioa sortuko litzateke, munduko protagonista nagusi gisa.

5. Itxierako gogoetak: diskurtsoen birbegirada

Amaitzeko, eta oso modu azkarrean, hiru gogoeta egin nahiko nituzke. Europaren inguruan jarrerak oso deigarriak izaten dira: batzuk eurofederalistak eta optimistak izaten dira, Europako erakundeek proposatzen duten guztia ontzat ematen dutenak. Beste muturrean euroeszeptikoak daude, errua beti Europari botatzen diotenak. Polo hauen artean jarrera asko dago. Jarrera horiek proiektuetan gauzatzen badira, errazago egiten da eztabaida; bestela, zaila da benetan jarreraren inguruan aritzea.

Bigarren gogoeta eta jarreraren desestaltze honekin batera, diskurtsoak eta erabiltzen ditugun kategoriak (kontzeptuak, ideiak, aurreiritziak) ere oso esanguratsuak dira, eta agerian jarri behar ditugu. Subiranotasuna, federalismoa, Estatu kide txikiak eta handiak, Konstituzioaren kontzeptua bera: gai eta kontzeptu hauen inguruan, norbera bere kultura politiko eta juridikoak emandako muga eta ulermen tresnen preso da. Kontziente izan beharko genuke honetaz. Britainiar batentzat subiranotasunaren arazoa oso garrantzitsua izan daitekeen bitartean, agian luxenburgotar batek oso asumituta izan dezake subiranotasuna kimera bat dela.

Egin behar dena da integrazio prozesuaren hasieran bertan egin zena; alegia, metodologia on bat aurkitu, merkatu bateratua sortu, mugikortasuna bultzatu eta arrezagutza bideak sortu. Horrekin batera, europar balio komunak (hiritartasuna, giza eskubideak) funtsezkoak dira europar eredu defentitzeko, bai nazioarteko harremanetan, bai ekonomia eta sozialaren arloetan.

3. *Europaren geroari buruzko Konbentzioa*-ri buruzko Jardunaldiak, 2002ko abenduaren 9an Donostian (Miramar jauregian), eta 12an Bruselan (Euskadiren ordezkartzearen egoitzan). Honen inguruan gehiago sakontzeko, ikus Eusko Ikaskuntzaren *Euskonews & Media* aldizkari elektronikoaren 191. ale monografikoa (<http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0191zbk/portada.html>).

4. Ikus eranskina.

Eusko Ikaskuntzaren Konstituzio Europarraren zirriborroa¹

Federazio Europarraren Konstituzioa

Europar Batasuneko hiritar eta herriek, eta hauek osatzen dituzten Estatu subiranoek,

ERABAKI dugu Europako Erkidegoaren sorrerarekin hasitako eta Europar Batasunaren sorrerarekin indartutako batasun europarra lortzeko prozesuan garai berri bati hasiera ematea,

BERRETSI dugu bat egitea askatasun, demokrazia, justizia eta Batasuneko Funtsezko Eskubideen Gutunean jasota dauden giza eskubide eta oinarriko askatasunen errespetuarekin, eta Zuzenbidezko Estatuarekin,

ERABAKI dugu Europar eta Munduan gizartearen eta ekonomiaren aurrerapena bultzatzea, garapen jasangarriaren printzipioa errespetatuz, kohesio sozial eta erregionala indartuz, ingurumena babestuz, eta egoerarik txarrean aurkitzen diren herriekiko elkartasuna sustatuz,

ADOSTU dugu Europako herrien arteko batasun gero eta estuago bat izateko prozesuari jarraipena ematea, kultura aniztasuna eta identitate nazionala zein erregionalak errespetatuz,

DELIBERATU dugu, geure subiranotasunaz baliatuz, Federazio Europar bat sortzea, eta Konstituzio hau onestea

I. ZATIA KONSTITUZIOA

I. TITULUA

Federazio Europarraren printzipioak

1. KAPITULUA

Balio fundazionalak

1. artikulua. 1. Konstituzio honen bidez, Europar Batasuneko hiritar eta herrien subiranotasunaren gordailuzain diren Estatuak FEDERAZIO EUROPARRA osatzen dute.

2. Federazio Europarra askatasun printzipioan, demokrazian, giza eskubide eta oinarriko askatasunekiko errespetuan eta Zuzenbide Estatuan (legezkotasun printzipioa edo *rule of law*) oinarritzen da.

3. Federazio Europarrak balio hauek mundu guztian zehar errespetatu daitezela sustatuko du, gobernantza parte-hartzaile, deszentralizatu eta kooperatibo batean.

4. Federazio Europarrak bere Estatu kideen identitate erregionala zein nazionala, eta Europako herrietako kultura nahiz hizkuntza aniztasuna aintzatetsi eta sustatuko ditu.

2. artikulua. Federazio Europarrak honako egitekoak izango ditu:

Garapen jasangarriari helduz, aurrerapen ekonomiko eta sozial harmoniatsu eta orekatua sustatzea, bizitza kalitatea hobetu eta kohesioa indartzeko xedearekin;

Europar eta Munduan askatasun, justizia eta segurtasuneko espazio bat finkatzea;

Ezagutzaren gizartearen hezkuntza maila on bat izatea eta hezkuntza iraunkorra bermatzea, hiritarrak aktiboki parte hartzea bultzatuz;

Europar eta Munduan ingurumena babestea;

Gutxien garatutako herrialdeekiko elkartasuna bultzatzea;

Nazioarteko bakea eta lankidetzatza sustatzea.

3. artikulua. Federazio Europarrak, esleitu zaizkion egitekoak gauzatzeko, honako instituzioak izango ditu:

Kontseilu Europarra

Europako Parlamentua

Ministroen Kontseilua edo Estatu kideen Ganbera,

Botere Lokal eta Erregionalen Ganbera,

Europako Batzordea

Justizia Auzitegia

Kontuen Auzitegia

1. Eusko Ikaskuntzako Zuzenbide Sailari 2002ko abenduaren 9an Konbentzio Europarrari buruz ospatutako jardunaldiaren aurkeztutako bertsioa. Egilea: Joxerramon Bengoetxea Caballero, Europa-Euskalerrri Taldearen koordinatzailea.

2. KAPITULUA

Oinarriko eskubideak

(Kapitulu honetan, Europar Batasuneko Funtsezko Eskubideen Gutuna sartuko litzateke, baina aldaketa batzuekin: Batasunaren ordeze, Federazio Europarra esan behar du. Zuzenbide komunitarioari egindako erreferentziak beren horretan utz daitezke)

1. Saila

Pertsonaren duintasuna

4. artikulua. Giza duintasuna bortxaezina da. Errespetatu eta babestu egingo da.

5. artikulua. 1. Pertsona orok du bizitzeko eskubidea.

2. Inor ere ez da heriotza zigorrera kondenatuko, eta ezta exekutatuko ere.

6. artikulua. 1. Pertsona orok du bere osotasun fisiko eta psikikorako eskubidea.

2. Medikuntza eta biologiaren esparruan, bereziki errespetatuko dira: doakion pertsonak askatasunez eta informaturik egon ondoren baimena ematea, legean ezarritako modalitateen arabera,

praktika eugenetikoen debekua, eta bereziki pertsona jakin batzuk hautatzea helburu dutenena,

giza gorputza edo gorputz zatiak irabazizko xede bihurtzearen debekua,

gizakiak ugaltzeko klonazioaren debekua.

7. artikulua. Ezin daiteke inor torturatu, ez eta inori zigor edo tratu anker edo lotsarazlerik eman ere.

8. artikulua. 1. Inor ere ez da izango besteren esklabo edo uztarpeko.

2. Inor ere ez da nahitaezko edo derrigorrezko lana egitera behartuko.

3. Gizakien salerosketa debekatuta dago.

2. Saila

Askatasunak

9. artikulua. Pertsona orok du aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

10. artikulua. Pertsona orok du bere bizitza pribatua eta familia bizitza, bere bizilekua eta bere komunikazioak errespetatuak izateko eskubidea.

11. artikulua. 1. Pertsona orok du bere datu pertsonalen babeserako eskubidea.

2. Datu horiek leialtasunez, helburu jakin batzuetarako, eta doakion pertsonaren baimenarekin edo legez aurreikusitako beste oinarriren baten indarrez tratatuko dira. Pertsona orok du berari buruz bilduta dauden datuak eskuratzeko eta hauek zuzentzeko eskubidea.

3. Arau horiekiko errespetua agintaritzat independente baten kontrolpean egongo da.

12. artikulua. Ezkontzeko eskubidea eta familia sortzeko eskubidea ziurtatzen dira, horien gauzatzea arautzen duen araudi europarraren arabera.

13. artikulua. 1. Pertsona orok pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasunerako eskubidea du. Eskubide honen barne dago erlijioa edo uste osoa aldatzeko askatasuna, eta baita norbere erlijio edo uste osoa bakarka edo taldean, jendaurrean nahiz pribatuan, kultuz, irakaskuntzaz, jardueraz eta erritoak gordez adierazteko askatasuna ere.

2. Kontzientzia eragozpenerako eskubidea aintzatesten da, bere gauzatzea arautzen duen araudi europarraren arabera.

14. artikulua. 1. Pertsona orok du adierazpen askatasunerako eskubidea. Eskubide honen barne dira iritzi askatasuna eta informazioak edo ideiak edozein bitarteko erabiliz agintari publikoen esku-hartzerik gabe eta mugarik gabe jaso edo zabaltzeko askatasuna.

2. Komunikabideen askatasuna eta aniztasuna errespetatzen dira.

15. artikulua. 1. Pertsona orok du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea maila guztietan, bereziki politika, sindikatu eta hiri esparruan, eta horrek pertsona orori beste batzuekin batera bere interesak defendatzeko sindikatuak sortzeko eta bertan afiliatzeko eskubidea ematen dio.

2. Federazio Europarraren mailan dauden alderdi politikoek hiritar europarren borondate politikoa adierazten laguntzen dute.

16. artikulua. Arterako eta ikerketa zientifikorako askatasuna dago. Katedra askatasuna errespetatzen da.

17. artikulua. 1. Pertsona orok du hezkuntzarako eta lanbide heziketa eta etengabeko prestakuntzarako eskubidea.

2. Eskubide honen barne da derrigorrezko irakaskuntza dohainik jasotzeko ahalmena.

3. Ikastegiak printzipio demokratikoak errespetatuz sortzeko askatasuna, eta gurasoek beren seme-alaben heziketa eta irakaskuntza beren uste oso erlijioso, filosofiko eta pedagogikoen arabera ziurtatzeko duten eskubidea errespetatzen dira, haietaz baliatzeko modua arautzen duten lege nazionalen arabera.

18. artikulua. 1. Pertsona orok du lana egiteko eta askatasunez aukeratu edo onarturiko lanbidean jarduteko eskubidea.

2. Hiritar europar orok du Federazio Europarreko edozein lurraldean enplegu bat bilatzeko, lan egiteko, finkatzeko edo zerbitzuak eskaintzeko askatasuna.

3. Federazio Europarreko lurraldean lan egiteko baimena duten hirugarren herrialdeetako pertsonak, Federazioko hiritarrek dauzkaten lan baldintza berberak izateko eskubidea dute.

19. artikulua. Enpresa askatasuna aintzatesten da, Zuzenbide komunitarioa eta Estatu kideetako legeria eta jarduerak kontuan izanik.

20. artikulua. 1. Pertsona orok du legez eskuratutako ondasunen jabetzaz gozatzeko, eta ondasun horiek erabiltzeko, baliatzeko eta oinordetzan uzteko eskubidea. Ezin zaio inori bere jabetza kendu, onura publikoko arrazoiak daudenean salbu. Horrelakoetan, jabetza legean aurreikusten diren kasu eta baldintzetan kenduko da, eta betiere arrazoizko epe batean galdutako jabetzarengatik trukean bidezko kalteordaina emanaz. Ondasunen erabilera legez arautu ahal izango da, interes orokorrerako premiazkatotzat jotzen denean.

2. Jabetza intelektuala babesten da.

21. artikulua. (Gutuneko 18. artikulua, aldatuta, Konstituzioak asiloari buruz jasotzen dituen xedapenak aipatzearen). Asilo eskubidea ziurtatzen da, 1951ko uztailaren 28ko Genevako Konbentzioaren arauak eta Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1967ko urtarrilaren 31ko Protokoloa errespetatuz, eta Konstituzio honekin bat.

22. artikulua. 1. Debekatuta daude kanporatze kolektiboak.

2. Ezin izango da inor itzuli edo estraditu heriotza zigorra, tortura edo zigor zein tratu anker eta lotsarazleak jasotzeko arrisku larria duen Estatu batera.

3. Saila

Berdintasuna

23. artikulua. Pertsona guztiak berdinak dira legearen aurrean.

24. artikulua. 1. Debekatuta dago diskriminazio oro, eta bereziki ondoko arrazoi hauengatik egiten dena: sexua, arraza, kolorea, jatorri etniko edo sozialak, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa edo sinesmenak, politikako edo bestelako irizaiak, gutxiengo nazional batekoa izatea, ondarea, jaiotza, ezgaitasuna, adina edo sexu orientazioa.

2. Nazionalitateagatik diskriminazio oro debekatuta dago Konstituzio honen aplikazio eremuan.

25. artikulua. Federazio Europarrak kultura, erlijio eta hizkuntza aniztasuna aintzatesten eta errespetatzen ditu.

26. artikulua. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eremu guztietan ziurtatuko da, enplegu, lan eta ordainsarien alorrean barne.

Berdintasun printzipioak ez du eragozten gutxiengoan dagoen sexuaren alde abantaila zehatzak eskaintzen dituzten neurriak mantendu edo hartzea.

27. artikulua. 1. Adingabeek beren ongizaterako beharrezkoak diren babes eta zainketarako eskubidea dute. Beren iritzia askatasunez adierazi ahal izango dute. Iritzi hori kontuan hartuko da haiei dagozkien gaietan, betiere adingabeen adina eta heldutasuna kontuan izanik.

2. Agintari publikoek edo erakunde pribatuek burutzen dituzten adingabeei loturiko jarduera guztietan, adingabeen interesak izango du lehentasun osoa.

3. Adingabe orok du bere aitarekin eta amarekin harreman pertsonalak eta zuzenekoak adizka izateko eskubidea, bere interesen aurka-koak direnean salbu.

28. artikulua. Adindunek bizitza duin eta independentea izateko eta gizarte eta kultura bizitzan parte hartzeko duten eskubidea aintzatesten eta errespetatzen du Federazio Europarrak.

29. artikulua. Pertsona ezgaituek beren autonomia, gizarteratzea, lan munduratzeta eta komunitateko bizitzan parte hartzea ziurtatzen dituzten neurriez gozatzeko duten eskubidea aintzatesten eta errespetatzen du Federazio Europarrak.

4. Saila

Elkartasuna

30. artikulua. Langileei edo beren ordezkari, dagozkien mailetan, informazioa eta kontsulta ziurtatu beharko zaie behar adinako aurrerapenarekin, Zuzenbide komunitarioan eta Estatu kideetako legeria eta jardueratan aurreikusitako kasu eta baldintzetan.

31. artikulua. Langileek eta enpresariak, edo beren hurrenez hurrenek erakundeak, Zuzenbide komunitarioa eta Estatu kideetako eta erregioetako legeria eta jarduerak kontuan izanik, dagozkien mailetan hitzarmen kolektiboak negoziatu eta sinatzeko eta, interes gatazkaren kasuan, beren interesak defendatzeko ekintza kolektiboak burutzeko eskubidea, greba barne.

32. artikulua. Pertsona orok du doako enplegu zerbitzu batean sartzeko eskubidea.

33. artikulua. Langile orok du bidegabeko irazpenaren aurka babesa jasotzeko eskubidea, Zuzenbide komunitarioa eta Estatu kideetako legeria eta jarduerak kontuan izanik.

34. artikulua. 1. Langile orok du bere osasuna, segurtasuna eta duintasuna errespetatzen dituzten baldintzetan lan egiteko eskubidea.

2. Langile orok du lanaldiaren gehieneko iraupena mugatzeko, eguneroko eta asteroko atsedendialki izateko eta urteroko ordaindutako oporrak izateko eskubidea.

35. artikulua. Debekatuta dago haurren lana. Lanean onartzeko gutxieneko adina ez da derrigorrezko eskolatzea amaitzen deneko adina baino txikiagoa izango, gazteen aldeko xedapenei kalterik egin gabe eta salbuespen mugatuak salbu.

Lan egiteko onartutako gazteek beren adinera egokitutako lan baldintzak izan behar dituzte, eta babestuta egon beharko dute esplorazio ekonomikoaren aurrean edo beren segurtasun, osasun, garapen fisiko, psikiko, moral edo sozialarentzat kaltegarria izan daitekeen edota beren heziketa arriskuan jar dezakeen edozein lanen aurka.

36. artikulua. 1. Familiaren babesa ziurtatzen da lege, ekonomia eta gizarte arloetan.

2. Familia bizitza eta lanbide bizitza bateratu ahal izateko, pertsona orok amatasunarekin erlazioenaturako edozein irazpenen aurka babestuta egoteko eskubidea du, bai eta amatasunagatik ordaindutako baimena eta haur bat jaio edo adoptatzeagatik ahaide baimena lortzeko eskubidea ere.

37. artikulua. 1. Federazio Europarrak gizarte segurantzaren prestazioak eta amatasunean, gaixotasunean, lan istripuetan, menpekotasunean, zahartzaroan eta antzeko kasuetan, edo lana galtzen denean, babesa ziurtatzen duten gizarte zerbitzuak eskuratzeko eskubidea aintzatesten eta errespetatzen du, Zuzenbide komunitarioak eta Estatu kideetako legeria eta jarduerak ezarritako modalitateen arabera.

2. Federazio Europarraren barruan legea betez bizi den eta lekualdatzen den pertsona orok gizarte segurantzaren prestazioak eta gizarte abantailak jasotzeko eskubidea du, Zuzenbide komunitarioan eta Estatu kideetako legeria eta jardueren arabera.

3. Gizarte bazterketaren eta pobreziaaren aurka borrokatzeko, Federazio Europarrak gizarte laguntza eta etxebizitza laguntza jasotzeko eskubidea aintzatesten eta errespetatzen du, baliabide nahikoak ez dituzten guztiei bizitza duina ziurtatzeko, Zuzenbide komunitarioak eta Estatu kideetako legeria eta jarduerak ezarritako modalitateen arabera.

38. artikulua. Pertsona orok du prebentzio sanitariorako eta atentzio sanitariora jasotzeko eskubidea, Zuzenbide komunitarioak eta Estatu kideetako legeria eta jarduerak ezarritako baldintzetan. Federazio Europarraren politika eta ekintza guztiak definitu eta burutzeko, giza osasunaren babes maila handia ziurtatuko da.

39. artikulua. Federazio Europarrak ekonomia interes orokorreko zerbitzueterako sarbidea aintzatesten eta errespetatzen du, Estatu kideetako legeria eta jarduerak xedatutakoari jarraiki eta Konstituzio hau kontuan izanik, Federazio Europarreko gizarte eta lurralde kohe-sioa bultzatzeko.

40. artikulua. Federazio Europarraren politikek, garapen jasangarriaren printzipioa kontuan izanik, ingurumenaren babes maila handia eta haren kalitatearen hobekuntza barne hartuko eta ziurtatuko dituzte.

41. artikulua. Federazio Europarraren politikek kontsumitzaileen babes maila handia ziurtatuko dute.

5. Saila

Justizia

42. artikulua. Federazio Europarreko Zuzenbideak ziurtatzen dituen eskubide eta askatasunak bortxaturik ikusi dituen pertsona orok

babes judizial eraginkorra izateko eskubidea du, artikulua honetan ezarritako baldintzak errespetatuz.

Pertsona orok du bere kausa legeak aurrez finkaturiko arrazoizko epe baten barruan epaile independente eta inpartzial batek ekitatiboki eta publikoki entzuteko eskubidea. Pertsona orok du aholkua jasotzeko eta defendatua eta ordezkaturia izateko eskubidea.

Behar adina baliabiderik ez dutenei doako laguntza juridikoa eskainiko zaie, betiere laguntza hori justiziaren aurrean eraginkortasunez aurkeztuko dela ziurtatzeko beharrezkoa denean.

43. artikulua. 1. Akusatu oro errugabetzat hartzen da bere erruduntasuna legez frogatzen eta aitortzen den arte.

2. Akusatu orori defentsaren eskubideak errespetatuko direla ziurtatzen zaio.

44. artikulua. 1. Inor ere ez da kondenatuko, burutu duen unean Estatu kideko Zuzenbidearen edo nazioarteko Zuzenbidearen arabera arau haustea ez zen ekintza edo omisio batengatik. Era berean, ezin da arau haustea burutu zen unean aplikatu beharrezkoa baino zigor larriagorik ezarri. Arau haustea burutu ondoren legeak zigor arinagoa ezarritzen badu, azken hori aplikatu beharko da.

2. Artikulu honek ez ditu burutu zen unean nazio guztiek aintzatesitako printzipio orokorren arabera delitua zen ekintza edo omisio baten errudun zen pertsonaren epaiketa eta zigorra eragotziko.

3. Zigorren indarra ez da arau haustearekiko neurritz kanpokoa izango.

45. artikulua. Inor ezin da akusatua edo zigor bidez kondenatua izan, baldin eta lehenik arau hauste beragatik legearen arabera epai irmo baten bidez Federazio Europarrean absolutu edo kondenatu badute.

6. Saila

Arau horizontalak

46. artikulua. (Gutuneko 51. artikulua, aldatuta). 1. Kapitulu honek xedapenak Federazio Europarreko erakunde eta organo guztxei zuzenduta daude, eta Estatu kideetako erakunde, organo eta botere publiko guztxei. Pertsona fisiko eta juridiko guztxei ere zuzentzen zaizkie. Hauek, beren ekintza orotan, funtsezko eskubideak errespetatu beharko dituzte.

2. Konstituzio honetan aurreikusitako funtsezko eskubideek ez dituzte Federazio Europarraren, Estatu kideen eta hauen baitan dauden erregioen arteko eskuduntzen banaketa finkatzen zein aldatzen.

47. artikulua. (Gutuneko 52. artikulua, baina 2. paragrafoa kenduta). 1. Kapitulu honek aintzatesten dituen eskubide eta askatasunen gauzatzearen edozein mugapen legez ezarri beharko da eta eskubide eta askatasun horien edukiaren funtsa errespetatu beharko du. Mugapenak sartu ahal izango dira, proportzionaltasun printzipioa errespetatuz, beharrezkoak direnean eta Federazio Europarrak aintzatesitako interes orokorreko helburuei edo gainontzekoen eskubide eta askatasunak babestu beharri erantzuten dietenean bakarrik.

2. Kapitulu honek Giza Eskubideak eta Funtsezko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenak ziurtatzen dituen eskubideekin bat datozen eskubideak barne hartzen baditu, eskubide horien zentzua eta irismena berbera izango da. Xedapen honek ez du eragozten Federazio Europarreko Zuzenbideak babes zabalagoa eman ahal izateko aukera.

48. artikulua. (Gutuneko 53 eta 54. artikulua, bat eginda eta aldatuta). Kapitulu honetako xedapenak ezin dira Federazio Europarreko Zuzenbideak, Nazioarteko Zuzenbideak eta Federazioa edo Estatu kideak sinaturiko nazioarteko hitzarmenek, eta bereziki Giza Eskubideak eta Funtsezko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenak, eta Estatu kideetako konstituzioek, beren hurrenez hurreneko aplikazio eremuetan, aintzatesten dituzten giza eskubideak mugatzeko edo kaltetzeko moduan interpretatu.

49. artikulua. Estatu kideek Konstituzio honek aurreikusten duen babesa baino handiagoa eman diezaiekete funtsezko eskubideei.

50. artikulua. Estatu kideren batek kapitulu honetan aintzatesitako funtsezko eskubideren bat seriozki eta etengabe bortxatzen baldin badu, edo bortxatzearekin mehatxatzen badu, Konstituzio honen arabera Estatu kide horri dagozkion eskubideak, bozkatzeko eskubideak barne, eseki ahal izango dira, Konstituzio honetan eta bere eranskinetan aurreikusten diren xedapenen arabera.

3. KAPITULUA

Hiritartasun europarra

51. artikulua. (EEEIko 17. artikulua). Hiritartasun europarra sortu da. Estatu kideren bateko hiritartasuna daukan pertsona fisiko oro izango da hiritar europar. Hiritartasun europarra Estatuko hiritartasunaren osagarria izango da, eta ez ordeko.

Hiritar europarrak Konstituzio honetan aurreikusten diren eskubideen titular eta betebeharren menpeko dira.

52. artikulua. Hiritar europar orok Federazio Europarreko lurraldean aske ibili eta bizitzeko eskubidea du.

53. artikulua. Hiritar europar orok, bera bizi den Estatu kidean bertako hiritar izan ez arren, bizi den Estatu kideko udal hauteskundeetan, erregioaletan, estataletan eta europarretan hautesle eta hautagai izateko eskubidea dauka, Estatu horretako hiritarren baldintza berberetan. Bozkatzeko eskubidea Estatu kide batean gauzatuz gero, ezin izango da eskubide hori Federazioko beste Estatu batean berriz gauzatu.

54. artikulua. (EEEIko 20. artikulua). Hiritar europar orok, bera hiritar den Estatu kideak ordezkartzarik ez daukan beste hirugarren herrialderen baten lurraldean, Federazioko edozein Estaturen agintari diplomatiko eta kontsularren babesa har dezake, Estatu horretako hiritarren baldintza berberetan. Estatu kideek babes hori bermatzeko behar diren arauak ezarriko dituzte beren artean, eta komeni diren nazioarteko negoziazioei ekingo diete.

55. artikulua. (EEEIko 21. artikulua). Hiritar europar orok, eta Federazio Europarrean bizi den pertsona fisiko orok, honako eskubideak ditu:

Europako Parlamentuari eskabidea egiteko;

Arartekoarengana jotzeko eta

Federazio Europarreko edozein erakunde edo organismo ez-jurisdikzionalera Federazioko hizkuntza ofizialetako batean idatziz jotzeko, eta erantzuna hizkuntza horretan bertan jasotzeko.

56. artikulua. Hiritar europar orok du Europako Parlamentuaren, Erregioen Batzordearen, Ministroen Kontseiluaren eta Europako Batzordearen agirieta jotzeko eskubidea, segurtasun kontuengatik kontsultatu ezin diren isilpeko agirieta izan ezik.

II. TITULUA

Federazio Europarraren egitekoak

1. KAPITULUA

Federazio Europarraren helburu estrategikoak

57. artikulua. Federazio Europarrak honako helburu estrategikoak izango ditu bere lurraldean:

jarduera ekonomikoen garapen harmoniatu, orekatu eta jasangarria bultzatzea,

kalitatezko enplegua eta gizarte babes maila altua lortzea, eta baita lehiakortasun eta etekin ekonomikoen konbergentzia maila altuak ere,

ingurumenaren babesa eta kalitatea bermatzea,

bizi maila eta kalitatea hobetzea,

erregioen arteko kohesio ekonomiko eta soziala bultzatzea, eta baita erregioekiko eta pertsonarik ahulenekei elkartasuna ere,

askatasun, justizia eta segurtasun giro batean, hiritar europarrei babes maila altua eskaintzea.

58. artikulua. Federazio Europarrak honako helburu estrategikoak izango ditu mundu mailan:

Federazioaren balio bateratuak, funtsezko interesak, independentzia eta nazioarteko aktore gisa bere osotasuna babestea,

Multipolaritatea errespetatu eta bultzatuko dituen nazioarteko bake eta segurtasuneko espazio bat sustatuz, Federazioaren segurtasuna indartzea,

nazioarte mailan garapen jasangarriaren alde kooperatzea, bereziki munduan onurarik gutxieneko erregioen aldeko elkartasunari dagokionez,

nazioarteko merkataritza askea sustatzea,

nazioarteko lankidetzat sustatzea, ingurumenaren kalitatea mundu mailan lortzeko,

bitarteko baketsuen bidez demokrazia eta legearen inperioa garatu eta sustatzea, eta baita giza eskubide eta funtsezko askatasunekiko errespetua ere, askatasun, segurtasun eta justiziazko espazio unibertsala lortzeko.

2. KAPITULUA

Federazio Europarraren eskuduntzak

59. artikulua. Federazio Europarrak, Konstituzio honek eta bere eranskinek esleitzen dizkion eskuduntza eta botereak izango ditu, eta bertan finkatutako muga barruan jardungo du.

Federazio Europarraren eskuduntzak izango dira edo eskusiboak, edo Estatu kideekin eta hauek osatzen dituzten erregioekin elkarbanatuak, edota Estatu kideekin eta hauek osatzen dituzten erregioekin osagarriak.

Eskuduntza motak ez du tresna mota finkatzen.

60. artikulua. 1. Eskuduntza eskusiboak, Federazioari eta bere erakundeei erreserbatutako botereak dira. Federazioaren eskuduntza eskusibokoak diren gaietan, Estatu kideen eta beren erregioen eskuduntzak arau europarrak inplementatu eta exekutatzen mugatuko dira.

2. Eskuduntza elkarbanatuak, Federazioko eta Estatu kideetako eta beren erregioetako erakundeek denborari eta gaiari dagokienez koordinatuta jardun dezaketzen eskuduntzak dira.

3. Eskuduntza osagarriak, hasiera batean Estatuaren edo erregioaren eskuduntzakoak diren gaiak izanik, gai horietan egiten diren ekintzak Federazioak babestu eta koordinatzen dituenak dira, europar mailan indartu eta koordinatzen eraginkorrako bihurtzen direla.

61. artikulua. 1. Federazioaren edota Estatu kideen eta beren erregioen eskuduntza eskusiboak ez diren gaietan erakunde federalen eta estatal edo erregionalen ekintzak zehazteko irizpideak subsidiarioratasun, koherentzia eta proportzionaltasun printzipioetan oinarrituko dira.

2. Subsidiarioratasun printzipioari jarraiki, eskuduntza eskusibokoak ez diren arloetan, jarduerak hiritar europarrengandik ahalik eta hurbilen dauden mailan gauzatuko dira. Horrela, maila lokala nagusituko zaio maila erregionalari, erregionala estatalari, eta estatala federalari. Federazioak soilik jardungo du eremuari edo ondorioei begira modu eraginkorrako batean beteko badira jardueraren helburuak. Federazioak, jardutekotan, beharrezkoa den heinean bakarrik egingo du, eta betiere proportzionaltasun printzipioari jarraiki, gainerako maila administratiboek parte hartu ahal izatea sustatuz.

3. Eskuduntza berriak eta espresuki eskusibo edo elkarbanatu gisa esleitu ez direnak, eta betiere Europa mailan subsidiarioratasun, koherentzia eta proportzionaltasun irizpideen arabera osatu ezin badira, Estatu kideen eta beren erregioen esku geldituko dira.

4. Baldin eta Federazio Europarraren helburuetako bat lortzeko Federazioaren ekintza bat beharrezkoa denean, eta Konstituzio honek ez baldin badu horren inguruan jarduteko boteririk aurreikusi, Europako Parlamentuak, Estatu kideen Ganberak eta Botere Erregional eta Lokalen Ganberak dagozkion legeak onartuko dituzte, gehiengo absolutuz, Europako Batzordearen proposamenari helduz (EEEIko 308. artikulua).

62. artikulua. 1. Europako Parlamentuak, Botere Erregional eta Lokalen Ganberak, Estatu kideen Ganberak eta Europako Batzordeak erakundearteko akordio bat hartuko dute subsidiarioratasun printzipioa modu egoki eta koherentean aplikatuko dela ziurtatzeko.

2. Ekimen legegileei dagokienez, Batzordeak Federazioko Zuzenbidea zuzenposatu, garatu eta exekutatzeaz arduratzen diren maila guztietako agintaritzak legegileak kontsultatuko ditu.

3. Prozesu legegileko edozein unetan, parlamentu estatal eta erregionalak subsidiarioratasun printzipioa errespetatzeari buruz daukaten iritzia eman ahal izango dute, eta Federazioko erakundeek kontuan hartu beharko dute iritzi hori.

4. Botere Erregional eta Lokalen Ganberak eta Estatu kideen Ganberak, beren kideen gehiengoz, Batzordeari eskatu ahal izango diote beren iritzian subsidiarioratasun printzipioarekin bat ez datorren ekimen legegile bat baztertu edo berrikustea, eta oinarrituta dagoen irizpen batean adierazi beharko dute beren ustez zein xedapen diren aipaturiko printzipio horren aurkakoak eskuduntza erregional edo estatalak inbaditzeagatik eta/edo maila europarrean ez izateagatik ez beharrezko, eta ezta eraginkorrako ere.

63. artikulua. Federazio Europarreko eta Estatu kideetako zein beren erregioetako erakundeek elkarlanean jardungo dute helburu bateratuak lortzeko, leialtasun federalari eutsiz. Konstituzio honetan finkaturiko betebeharrak, zeregin eta helburuak betetzeko beharrezko diren neurriak hartuko dituzte, eta ez dute betetze hori eragotz dezakeen neurriak hartuko.

64. artikulua. Federazioak Estatu kideen eta beren erregioen autonomia instituzionala errespetatuko du, eta baita beren egitura politiko eta administratiboak ere, eta horiekin guztiekin leialtasunez jardungo du. Era berean, Estatu kideetako prozesu konstitutiboak eta berrikuspen konstituzionalak errespetatuko ditu, baita Estatu kide berri baten sorreraren bidez barne zabaltze prozesu bat dakartenean ere, eta beraz Estatu kideak Federazioaren baitan daukan zama berrikusteko prozesu bat.

Federazioak errespetatu egingo ditu Estatu kideen arteko edota hauen eta eskuduntza legegileak daukaten erregioen arteko akordioak, edota erregio hauen artekoak, beren helburua lankidetzaz berrindartu edo mugaz gaindiko lankidetzaz berezia ezartzea denean. Horretarako, Konstituzio honetan aurreikusitako erakunde, prozedura eta mekanismoez baliatu ahal izango dute².

2. EEEIko 11. artikulua, EBko 43 eta 44 artikulua.

3. KAPITULUA

Federazio Europarraren jardura eremuak

65. artikulua. Federazio Europarrak, bere helburu estrategikoak bete ahal izateko, bere botere eskusiboetara joz jardungo du honako arloetan:

1. Federazioaren jardura eskusiboek barne merkatu bakarra lortzea izango dute helburu, eskuduntza murrizketarik gabe, non pertsonak (langileak, profesionalak edo enpresak) trabarik gabe finkatu ahal izango diren, lana beren konturako edo hirugarren baten konturako egin ahal izango duten, salgaiak, zerbitzuak eta kapitala joan-etorri askean ibiliko diren, eta joan-etorri askerako eragozpenak ezabatuko diren. Barne merkatuak aduna batasuna izango du, debekatuta egongo da salgaiak inportatzeko murrizketa mota guztiak, nekazaritza eta arrantza politika bateratuak izango ditu, zeharkako fiskalitate politika bateratua, eta merkataritza politika bateratua.

2. Askatasun, justizia eta segurtasunezko espazio bat sortzeari begira Federazio Europarrean pertsonen joan-etorria askea izateak eskatzen du bisatu, asilo eta immigrazio esparruan modu eskusiboan jardutea.

3. Federazioaren jardura eskusiboek diru politika eta moneta europarrean (*euro*-aren) nazioarteko itzala arautuko dituzte, beren helburua prezioen egonkortasuna lortzea eta politika ekonomikoaren ildo nagusiak indartzea izanik.

66. artikulua. Federazio Europarrak, bere helburu estrategikoak lortzeko, eta Estatu kideekin eta beren erregioekin lankidetzan bere botere elkarbanatuak gauzatuz, honako arloetan landuko ditu bere jardura estrategikoak:

1. garraioen eta Europaz gaindiko sareak garatzeko politika bateratu diseinatzea,
2. ekonomiaren eta gizartearen kohesioa indartzea,
3. fiskalitate zuzeneko politika koordinatzea,
4. lehia askeko marko batean laguntza publiko eta erregionalen kontrolatzea,
5. erregioen desorekak zuzentzea,
6. garapen jasangarriari eta ingurumena babesteari buruzko politika,
7. diskriminazioaren aurkako gizarte politika,
8. kontsumitzaileen babesa,
9. lehiakortasun industrialari eta garapen teknologikoari buruzko politika,
10. ikerketari eta zientzia zein berrikuntzari buruzko politika,
11. energiari buruzko politika bateratua,
12. interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak kontrolatzeko politika,
13. iruzurraren aurkako borrokarako, Federazioaren aurrekontuen interesei eta finantza interesiei, eta fiskal europarraren funtzionamenduari buruzko politika,
14. segurtasun eta defentsari buruzko kanpo politika bateratua, krisien kudeaketa, gizabidezko laguntzarako eta bakea mantentzeko misioak barne,
15. garatzen laguntzeko eta pobreziaaren aurkako kanpo politika,
16. ingurumena babesezko kanpo politika,

67. artikulua. Federazio Europarrak, bere helburu estrategikoak lortzeko, eta Estatu kideen eta beren erregioen jarduerekin koordinatuta, bere botere osagarriak gauzatuz, honako arloetan lankidetzan jardungo du, ekintza estrategikoak babestuz:

1. Estatu kideen eta beren erregioen politika ekonomikoa eta aurrekontu politika koordinatzea (bereiziki, babes sozialeko sistemen jasangarritasuna),
2. jardura estrategikoen finantzaketa, erregioen arteko lankidetzaren eta gizarte zein lurralde kohesioko programa eta fondoen bidez,
3. enplegurako estrategia europarra, estrategia estatal eta erregionalak bultzatuz,
4. hezkuntza eta lanbide heziketa sistemen kalitaterako eta bizitza guztian zehar ikasten jarraitu ahal izateko aukera bermatzeko estrategia europarra,
5. ezagutzaren gizarterako estrategia europarra, Estatu kideen eta beren erregioen politikak sustatuz eta babestuz,
6. gizarteratze, osasun politika eta pentsio politikak koordinatzea, Estatu kideen eta beren erregioen gizarte, osasun eta laguntza politikak babestuz,
7. gaztediari eta zahartzte aktiboari buruzko estrategia europarra,
8. lankidetzak kulturalerako eta turismorako laguntza,

9. Estatu kideetan eta beren erregioetan kriminalitatearen aurka borrokatzeko politiken koordinazioa,
10. politika poliziala,
11. Espazio judizial europarra osatu eta modu egokian koordinatzea,
12. babes zibileko neurriak eta larrialdietarako laguntza fondoa,
13. jarduera osagarriak nazioarte mailan garatzea.

4. KAPITULUA

Federazio Europarraren tresnak

68. artikulua. Federazio Europarrak, bere erakundeek onartutako lege, erregelamendu eta erabaki komunitarioen bidez gauzatzeko dituzten bere botere eskusibo eta elkarbanatuak, eta baita Federazioko erakundeek emandako eta Estatu kideek eta beren erregioek Justizia Auzitegiaren kontrolpean inplementaturiko direktiba komunitarioen bidez ere.

Federazio Europarreko Zuzenbidea edo Zuzenbide komunitarioa osatzen dute honako Konstituzioak, berari erantsitako Itunek eta hauei jarraiki onartutako tresnek, nazioarteko akordioek eta Zuzenbidearen printzipio orokorrek. Zuzenbide komunitarioak, Estatu kideetako ordenamendu juridiko guztien Zuzenbide komuna izanik, lehentasuna izango du Estatu kideetako barne Zuzenbideekiko, eta azken hauek Zuzenbide komunitarioarekin bat etorritik interpretatuko dira.

Lege komunitarioak irismen orokorra izango du. Bete beharrekoa izango da bete alderdi guztietan, eta Estatu kide bakoitzean zuzenean aplikagarria. Legea, erregelamendu komunitarioen bidez garatu ahal izango da.

Direktiba komunitarioak emaitza jakin bat lortzera behartzen du Estatu kidea, baina Estatu kideetako eta beren erregioetako agintarien esku uzten ditu emaitza hori lortzeko modua eta metodoak.

Erabaki komunitarioa, hartzaile guztiek bere puntu guztietan bete beharrekoa izango da.

Nazioarteko akordioak lotesleak izango dira beren puntu guztietan, eta zuzenean aplikatu ahal izango dira Estatu kide bakoitzean.

69. artikulua. Federazio Europarrak, bere egitekoak bete eta bere helburuak lortzeko, baliabide propioen sistema bat izango du. Hau osatuko dute aduana eskubide eta inportazio zergetatik lortutakoak, Banku Zentralen Europako Sistemaren sarrerek, zeharkako zergen ehuneko batek eta zerga ekologikoaren ehuneko batek.

Aurrekontuarekin lotutako gaiak, Federazioaren urteroko Aurrekontuko gastu eta baliabideak, lege komunitario baten bidez finkatuko dira. Aurrekontu horrek orekatua izan beharko du. Federazioak ezin izango du izan ez defizitik eta ez zorrik.

70. artikulua. Federazio Europarraren koordinazio eta zuzendaritza politiko botereak Federazio Europarreko erakundeek gauzatzeko dituzte, dauzkaten botereen arabera. Horretarako, gomendioak, ebazpenak, iritziak, irizpenak, direktirikak, komunikazioak, marko programak, ekintza planak, liburu zuri edo orlegiak, eta kontsultarako beste agiriak eman ahal izango dituzte. Ez dira lotesleak izango.

Koordinazioa egin ahal izango da helburuak, direktirikak eta jarraitu zein ebaluatu ahal izango diren adierazleak finkatuz. Europako Batzordearen ekimen eta proposamenari jarraituz, Ministroen Kontseiluak, Europako Parlamentuarekin batera, eta, bere kasuan, Botere Erregional eta Lokalen Ganberarekin batera, Ekonomia eta Gizarte Lantaldea kontsultatu ostean, koordinazio prozesua abian jarri eta garatzeko baldintzak finkatuko ditu. Estatu kideek eta beren erregioek, beren eskuduntzen arabera, koordinazio prozesuarekin bat etorritik inplementatuko dituzte beren politikak.

Estatu kideei eta beren erregioei zuzendutako politika ekonomikoari eta enpleguari buruzko norabide orokorrak Ministro Kontseiluak eta Europako Parlamentuak, biek batera, hartuko dituzte, Europako Batzordeak egindako proposamenari jarraiki, eta Botere Erregional eta Lokalen Ganbera, Ekonomia eta Gizarte Lantaldea, eta Europako Banku Zentrala kontsultatu ostean. Ekonomia zein gizartearen eragina duten orientazio guztiekin koordinatuko dira.

71. artikulua. Kanpo politika eta segurtasun bateratuaren arloan, Kontseilu Europarrak eta Ministroen Kontseiluak, Europako Batzordeak egindako proposamenen oinarrituz eta Europako Parlamentua kontsultatu ostean, estrategia bateratuak adostuko dituzte, eta ekintza zein jarrera bateratuak hartuko dituzte Estatu kideen eta Federazioaren interes bateratuak ukitzen direnean. Ekintza hauek, printzipioz, eragotzi egingo diete Estatu kideei beren kabuz jardun ahal izatea.

Federazio Europarrak eta Estatu kideek interes bateratu garrantzitsuak dituzten arloetan, estrategia bateratuen bidez finkatuko dituzte beren helburuak eta iraupena, eta Federazioak zein Estatu kideek ipini beharko dituzten bitartekoak.

Ekintza bateratuak egingo dira Federazioaren aldetik ekintza operatibo bat egitea beharrezkoa denean. Ekintza bateratueta helburuak, irismena, iraupena eta bitartekoak zehaztuko dira.

Jarrera bateratuak Federazio Europarrak gai geografiko edo tematiko jakin bati buruz duen ikuspegia emango dute. Estatu kideek ahaleginak egingo dituzte beren politikak xedapen komunekin bat etortzeko.

III. TITULUA

Federazio Europarreko erakundeak

1. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

72. artikulua. 1. Kontseilu Europarrak, Europako Parlamentuak, Ministroen Kontseiluak edo Estatu kideen Ganberak, Botere Erregional eta Lokalen Ganberak, Europako Batzordeak, Justizia Auzitegiak eta Kontuen Auzitegiak Konstituzio honek eta berari erantsitako Itunek esleitzen dizkieten eskuduntzen muga barruan jardungo dute.

2. Europako Parlamentuak, Ministroen Kontseiluak eta Europako Batzordeak aholkuak emateko funtzioa duen Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen laguntza izango dute.

3. Arartekoak Federazio Europarrak behar bezala jarduten ote duen ziurtatuko du.

4. Banku Zentralen Europako Sistemak (BZES), Europako Banku Zentralak (EBZ) eta Europako Inbertsioetarako Bankuak (EIB) Konstituzio honek eta honi erantsitako BZES, EBZ eta EIBren Itun eta Estatutuek esleitzen dizkieten muga barruan jardungo dute.

5. Federazioko erakunde eta organoen Estatutuek Konstituzio honi erantsitako protokoloetan daude. Federazio Europarreko erakunde eta organoek beren barne erregelamenduak finkatu eta argitaratu eman goi dituzte.

2. KAPITULUA

Federazio Europarreko Presidentzia

73. artikulua. Kontseilu Europarraren esku dago Federazio Europarraren presidentzia kolegiatua. Kontseilu Europarra osatzen dute Estatu kideetako Estatu buruek edo Gobernu buruek, Europako Parlamentuko presidentek, Botere Erregional eta Lokalen Ganberako presidentek, Europako Batzordeko presidentek, eta Kanpo Politikako goi ordezkariak.

Kontseilu Europarrak Federazioari garatzeko behar duen indar politikoa emango dio, eta, Federazioak daukan zeregin eta helburu estrategikoekin bat etorritik, bere ildo politiko nagusiak zehaztuko ditu. Bere kideen bi herenen gehiengoz hartuko ditu erabakiak.

Ministroen Kontseiluko presidentea izango da Kontseilu Europarreko presidentea. Ministroen Kontseiluko idazkari nagusiak jardungo du Kontseilu Europarreko idazkari nagusi gisa.

3. KAPITULUA

Botere Legegilea

1. Saila

Europako Parlamentua

74. artikulua. 1. Europako Parlamentua hiritar europarren ordezkariak osatuko dute. Ordezkarri hauek bost urteko eperako aukeratu dira, sufragio unibertsal zuzenez.

2. Europako Parlamentuko kideen kopuruak, orotara, ezin izango du 500 baino handiagoa izan.

3. Estatu kide bakoitzean aukeratutako ordezkarien kopurua honakoa izango da:

- 1 milioitik behera biztanle dauzkaten Estatu kideak: 2
- 1 milioi eta 2 milioi biztanle artean dauzkaten Estatu kideak: 3
- 2 eta 4,5 milioi biztanle artean dauzkaten Estatu kideak: 5
- 4,5 eta 9 milioi biztanle artean dauzkaten Estatu kideak: 8
- 9 eta 13 milioi biztanle artean dauzkaten Estatu kideak: 11
- 13 eta 17 milioi biztanle artean dauzkaten Estatu kideak: 13
- 17 eta 23 milioi biztanle artean dauzkaten Estatu kideak: 17
- 23 eta 30 milioi biztanle artean dauzkaten Estatu kideak: 23
- 30 eta 40 milioi biztanle artean dauzkaten Estatu kideak: 30
- 40 eta 50 milioi biztanle artean dauzkaten Estatu kideak: 35
- 50 eta 65 milioi biztanle artean dauzkaten Estatu kideak: 40
- 65 eta 100 milioi biztanle artean dauzkaten Estatu kideak: 50
- 100 milioitik gora biztanle dauzkaten Estatu kideak: 55

4. Egitura lurraldetar eszentralizatua daukaten Estatu kideek barruti erregionalak ezarriko dituzte, hautaketa proportzionalaren sistema mantenduz. Muga bera daukaten Estatu kideek, komunean dauzkaten mugaz gaindiko barrutietarako erreserbatu ahal izango dituzte beren ordezkari batzuk. Horrek ez dio eragingo Estatu kide bakoitzearnaut daitekeen ordezkari kopuru orokorrari.

75. artikulua. 1. Europako Parlamentuak egintza edo tresna komunitarioak sortzeko prozesuan parte hartuko du. Elkarrekin erabakitze prozeduretan gauzatuko ditu bere botereak.

2. Europako Parlamentuak ekimen legegile bat edo koordinaziorako ekimen bat aurkez dezala eskatu ahal izango dio Batzordeari.

3. Europako Parlamentuak Federazio Europarraren eskuduntza-koak diren gai guztietan ebazpen eta iriti aholku emaileak eman ahal izango ditu.

4. Europako Parlamentuak funtsezko eskubideak eta hiritartasun europarra Federazioan nola inplementatzen diren aztertu eta gainbegiratu du.

5. Europako Parlamentuak exekuzio hutsekoak ez diren nazioarteko akordioak onartuko ditu, eta Federazio Europarreko kanpo politikako gaietan Ministroen Kontseiluak aholkua eskatuko dio.

6. Europako Parlamentuak Batzordearen eta Ministroen Kontseiluaren ekintza eta programak kontrolatuko ditu, bereziki Estatu kideen eta beren erregioen politiken koordinazioa.

7. Europako Parlamentuak, bere kideen bi hereneko gehiengoaz, zentsura mozioa aurkeztu ahal izango du Batzordearen ekintzen aurka. Mozioak aurrera egitekotan, Batzordeak dimititu egingo du.

8. Europako Parlamentuak, bere kideen gehiengo absolutuaz, zentsura mozioa aurkeztu ahal izango du Batzordeko kide baten ekintzen aurka. Mozioak aurrera egitekotan, kide horrek dimititu egingo du.

9. Europako Parlamentuak ahozko zein idatzizko galderak egin diezazkioke Batzordeari, eta baita ere Ministroen Kontseiluari, honek bere ahalmen exekutiboa gauzatzen duenean. Gainera, lkerketa eta Kexen Batzordea sortuko du, hiritar europarrek eta Estatu kideetako zein beren erregioetako parlamentuek politika eta programa komunitarioei edota Federazioko, Estatu kideetako edo beren erregioetako administrazioek fondo komunitarioak erabiltzeari dagokionez dauzkaten kexak jasotzeko.

10. Europako Parlamentuak Estatu kideetan dauden Parlamentu zentral zein erregional ezberdinen arteko lankidetzaz sustatu eta antolatuko du, urtero ospatuko den Konferentzia batean integrazio europarri lotutako gaiak aztertzeko. Konferentzia honek gomendioak luzatu ahal izango dizkie Federazioko erakundeei. Era berean, nazioarte mailan dauden beste batzar esanguratsuekin lankidetzaz ere sustatuko du.

2. Saila

Ministroen Kontseilua

76. artikulua. Ministroen Kontseilua ministro mailako ordezkariak osatuta egongo da, eta ordezkari hauek ordezkatzaren dute Estatu kideko Gobernuaren konprometitzeko ahalmen orokor edota zehatza izango dute.

Presidentzia Estatu kide guztiek banan-banan eta txandaka beteiko dute, sei hilabeteko aldietan. Presidentziak Kontseiluko Idazkari Nagusiaren laguntza jasoko du. Idazkari Nagusi hau Ministroen Kontseiluak berak izendatuko du, eta bi urtero berritu ahal izango da.

Kontseiluak gaien arabera antolatutako batzorde edo delegazio ministerialen laguntza jasoko du. Hauetan, Estatu kideko Gobernuaren konprometitzeko ahalmena dute gobernu edota parlamentu estatal edo erregionalak kideek egon ahal izango dute.

Ministroen Kontseiluak ganbera legegile eta exekutibo federal gisa jardungo du kanpo politika eta defentsa, politika ekonomiko eta fiskal, eta barne segurtasunari buruzko politika gaietan.

Legegile bezala jarduten duenean, Estatu kideen Ganbera izena hartuko du, eta jendaurrean egingo ditu bere bilkurak. Estatu kideen eta biztanleen gehiengo bikoitzaz hartuko ditu erabakiak, eta abstentzioak funtzio konstruktiboa izango du.

77. artikulua. Estatu kideen Ganberak honako funtzioak izango ditu:

Elkarrekin erabakitze prozeduretan, egintza edo tresna legegile edo finantzieroko finkatzea.

eduki ekonomikoa dute nazioarteko akordioak onartzea,

Batzordea lege komunitarioak erregelamenduz garatzeko edo delegatzen dizkion exekuziozko erabaki komunitario jakin batzuk hartzeko habilitatzea,

Estatu kideen eta beren erregioen politiken arteko koordinazioa sustatzea, koordinatzeko beharrezko diren tresnak finkatuz,

Batzordeari helburu bateratuak lortzeko eta proposamen zein ekimen legegileak egiteko azterlanak egitea eskatzea.

3. Saila

Botere Erregional eta Lokalen Ganbera

78. artikulua. Botere Erregional eta Lokalen Ganbera sortuko da. Bertan 250 ordezkari egongo dira, guztiak ere erregio konstituzionalen edota ahalmen legegileak dute erregioetan banatuta dauden Estatuetak herriek eta Estatu kideetako udal, erregio, kanoi edo probintzietan aukeratutako kideak izanik.

Botere Erregional eta Lokalen Ganberaren barruan, Erregio Konstituzionalen Ganbera bat sortuko da, eta, bertan, II. Tituluko 3. Kapituluaren aipaturiko arloetan eskuduntza legegileak daukaten erregio bakoitzeko ordezkari bat egongo da.

Botere Erregional eta Lokalen Ganberako kideen agintaldia bost urtekoa izango da.

79. artikulua. Botere Erregional eta Lokalen Ganberak Federazioko prozesu legegilean parte hartuko du.

Botere Erregional eta Lokalen Ganbera arduratuko da subsidiariotasun printzipioak behar bezala funtzionatzeaz, leialtasun federalaren printzipioa behar bezala aplikatzeaz, gobernantza europarra egokia izateaz, eta administrazio ezberdinen arteko koordinazioa hiritarren interesen onerako eraginkorra izateaz. Justizia Auzitegiaren aurrean jarduteko legitimatuta dago, bai subsidiariotasun printzipioaren defentsan, bai eskuduntzen banaketa eta egikaritzari buruzko gatazketan.

Botere Erregional eta Lokalen Ganberari aholkua eskatuko zaio elkarrekin erabakitze prozedura jarraituko dute Batzordearen ekimen legegileei buruz. Kasuotan bi hilabeteko epean eman beharko du bere irizpena, gehiengo sinplez, eta ez da loteslea izango. Nolanahi ere, irizpen negatiboa emango balu, tresna onartzeko Estatuetak Ganberen bi hereneko gehiengo beharko da.

Botere Erregional eta Lokalen Ganberari aholkua eskatuko zaio erregioek eskuduntza legegileak dauzkaten arloetan koordinaziorako programa eta ekintzei buruz. Kasuotan bi hilabeteko epean eman beharko du bere irizpena, Erregio Konstituzionalen Ganberako kideen gehiengo absolutuz, eta loteslea izango da.

Botere Erregional eta Lokalen Ganberari aholkua eskatuko zaio Ministroen Kontseiluaren ekintzei buruz, honek exekutibo gisa jarduten duenean erregioek eskuduntza legegile eta administrazioak dauzkaten arloetan. Kasuotan hilabete bateko epean eman beharko du bere irizpena, gehiengo sinplez, eta ez da loteslea izango.

Botere Erregional eta Lokalen Ganberak, bere kideen gehiengo absolutuaz, Batzordeari eskatu ahal izango dio ekimen komunitario legegile edo politikoak aurkez ditzala, Federazioaren helburuak ziurtatzeko, batik bat kohesio lurraldetarrekin, politika erregional europarrekin eta mugaz gaindiko lankidetzarekin lotutako gaietan.

4. KAPITULUA

Botere Exekutiboa

1. Saila

Ministroen Kontseilua

80. artikulua. 1. Ministroen Kontseiluak, kanpo politikan exekutibo moduan jarduten duenean:

Estrategia bateratuak finkatuko ditu,

Estrategia bateratuak inplementatuko ditu, jarrera eta ekintza bateratuak finkatuz,

Ekintza defentsibo edo interbentzio militar bateratuak erabaki eta antolatuko ditu,

Implikazio juridikorik ez dute akordio politikoak egingo ditu,

Goi Ordezkararen eta bere delegatuen jardura koordinatuko du,

Defentsa europarreko kuarter nagusia koordinatuko du. Honek planifikatzeko ahalmena izango du, eta Federazioan dauden gorputz multinazionalen aginte osoa gainbegiratuko ditu,

Helburu bateratuak betetzeko asmoarekin, Batzordeari azterlanak egiteko eskatuko dio,

Batzordeari kanpo politikan proposamenak egitea eskatuko dio.

Ministroen Kontseiluko presidentek Kanpo Politikako Goi Ordezkarari eta Batzordeko presidenteordearen, eta Idazkari Nagusiaren laguntza izango du.

2. Ministroen Kontseiluak, justizia eta barne arazoan arloko exekutibo moduan jarduten duenean:

Europolen jarduerak kontrolatuko ditu,

Ekintza polizial bateratuak antolatuko ditu,

Helburu bateratuak betetzeko asmoarekin, Batzordeari azterlanak egiteko eskatuko dio,

Batzordeari segurtasun edo justiziako barne politikan proposamenak egitea eskatuko dio,

Zigor arloan lankidetzat judiziala bultzatuko du.

Ministroen Kontseiluko presidentek Idazkari Nagusiaren eta askatasun, segurtasun eta justiziazko espazio europarrak arduratzen den Batzordeko presidenteordearen laguntza izango du.

3. Ministroen Kontseiluak, politika ekonomiko, sozial eta fiskalean exekutibo moduan jarduten duenean:

Federazio Europarreko egoera ekonomikoak eskatzen dituen beharrezko neurriak hartzea proposatuko du,

Zailtasun larriak sortzean edo ezohiko inguruabarretan finantza laguntza emango du,

Politika Ekonomikoko Ildo Nagusiak finkatuko ditu,

Ganbio tipoen politikako ildo nagusiak finkatuko ditu,

Fiskalitate zuzeneko koordinazio eta harmonizazio progresiborako ekintzak aholkatuko ditu, fiskalitate zuzenean Estatuek edo, bere kasuan, erregioek dauzkaten eskuduntzen kontra jarri gabe.

Ministroen Kontseiluko presidentek Idazkari Nagusiaren eta politika ekonomikoaz arduratzen den Batzordeko presidenteordearen laguntza izango du.

4. Ministroen Kontseiluak, bere ahalmen exekutiboaren bidez, Konstituzio honek eta honi erantsitako Itunek esleitzen dioten izendatzeko ahalmena gauzatuko du.

5. Ministro Kontseiluak, bere idazkari nagusiaren bidez, Kontseilu Europarraren gai zerrenda prestatuko du Batzordeko presidentearekin batera.

81. artikulua. Federazio Europarreko Kanpo Politikako Goi Ordezkaria Europako Batzordeko kanpo politikako presidenteorde ere izango da, eta bere kanpo eskuduntzetako gaietan Federazio Europarra ordezkatzeko ahalmena izango du. Batzordeko presidentek izendatuko du Ministroen Kontseiluak aurkeztutako hirukote baten artean, eta Europako Parlamentuak emandako botoen gehiengo absolutuz berretsiko du bere postuan.

Kanpo Politikako Goi Ordezkaria nazioarteko akordioen negoziazioen buru izango da Federazioaren izenean, eta berea izango da Federazioko kanpo politika eta segurtasun bateratua inplementatzearen ardura.

Federazioak eginkizun zehatzetarako izendatu dituen Goi Ordezkarien gorputzaren jarduerak zuzendu eta koordinatuko ditu, Federazioaren estrategia, jarrera eta ekintza bateratuekin bat etorriz.

Estatu kideetako gorputz diplomatikoak koordinatuko ditu II. Tituluko

3. Kapituluaren zehaztutako arloetan.

2. Saila

Europako Batzordea

82. artikulua. Europako Batzordea gobernantza europarra egokia izateaz arduratuko da, Konstituzio honekin bat etorriz.

Europako Batzordea presidente batek zuzenduko du. Europako Parlamentuak aukeratuko du, Ministroen Kontseiluak proposaturiko hiru hautagairen artean.

Europako Batzordearen zuzendaritza politikoa bere presidentearen eta hiru presidenteordeen esku egongo da. Hiritar europarrek osatuko dute, hau da, gehienez ere 20 komisariok. Komisario hauek independenteak izango dira beren funtzioetan, eta ezin izango dute Estatu kideen aldetik inolako jarraibiderik jaso.

Batzordeak kolegiatuta jardungo du, eta bere erabakien erantzukizuna kolektiboa izango da. Komisarioak bost urtez egongo dira beren karguan, eta berritu egin ahal izango dute agintaldia.

Batzordeak, bere kideen gehiengo absolutuaz hartuko ditu erabakiak.

83. artikulua. Batzordeko presidentek Estatu kide bakoitzak proposaturiko hirukote batetik aukeratuko ditu komisarioak eta presidenteordeak, Kanpo Politikako Goi Ordezkaria izan ezik, Europako Parlamentuaren osaketa politikoa islatuz. Batzordearen erantzukizunak antolatu ahal izango ditu, karterak komisarioan artean banatu, eta komisarioak kargutik kendu eta beren ordez beste batzuk izendatu, kanpo politikako presidenteordearen/Goi Ordezkaria kasuan izan ezik.

Europako Batzordean honako hauek ere egongo dira: kanpo politikaz arduratuko den presidenteorde bat, Kanpo Politikako Goi Ordezkaria izango dena, politika ekonomiko, sozial, finantziario eta fiskaleko presidenteorde bat, eta barne segurtasun eta justiziako politikako presidenteorde bat.

Lege bidez, Batzordearen menpe egongo diren Agentzia Europarrak sortu ahal izango dira. Beren naziootasuneko komisarioak ez duten Estatu kideek lehentasuna izango dute Agentzia Europarretako presidentek izendatzerakoan.

Europako Batzordea Europako Parlamentuaren eta Ministroen Kontseiluaren onarpen botoen menpe egongo da. Presidentek bere exekutiboaren konfigurazioa eta agintaldiak iraungo dituen bost urteetarako Gobernantza Plana defendatuko ditu. Atzera bota ahal izango da Europako Parlamentuko kideen bi herenen botoz, edota Estatu kideen eta beren biztanleen bi hereneko gehiengo bikoitzaz.

84. artikulua. Batzordeak, Konstituzio honen, berari erantsitako Itunen eta Zuzenbide komunitario guztiaren zaindari izanik, eta baita integrazio prozesuaren motor ere:

Ekimen legegilean edo tresna legegile eta finantzarioen ekimenetarako eskubide eskusiboa izango du,

Federazio Europarraren aurrekontua exekutatu du, eta baliabide propioak jasotzen direla gainbegiratu,

Lege europarrak garatzeko erregelamenduak onartu ditu, Estatu kideen Ganberak hori egiteko habilitatu duenean,

Nazioarteko akordioan eta kanpo politikako tresna exekutiboaren ekimenetarako eskubide eskusiboa izango du,

Koordinatzeko tresnen ekimenetarako eskubide eskusiboa izango du,

Elkarrekin erabakitzeko prozesuaren bidez onartutako lege eta direktibak fidelik exekutatu ditu,

Konstituzio hau, berari erantsitako Itunak eta hauek garatzeko tresnak betetzen direla aztertuko du,

Konstituzio honetan eta berari erantsitako Itunetan jasotako gaien inguruko gomendio eta irizpenak emango ditu,

Agentzia Europarren lana gainbegiratu,

Bere Urteroko Gobernantza Plana aurkeztu du. Honako hau Europako Parlamentuan, Ministroen Kontseiluan eta Botere Erregional eta Lokalen Ganberan eztabaidatuko dute.

5. KAPITULUA

Botere Judiziala

85. artikulua. Botere Judizial komunitarioa osatuko dute Justizia Auzitegiak, Lehen Auzialdiko Auzitegiak eta gaien arabera espezializatuta dauden panel judizial batzuek.

Justizia Auzitegia, Federazio Europarrean Zuzenbidearen Inperioa betearazteko erantzukizuna duen organo gorena da, eta Zuzenbide komunitarioa interpretatu eta baliozko deklaratzeko.

Lehen Auzialdiko Auzitegiak partikularrek legegileak ez diren tresna juridikoen eta erakunde zein organo komunitarioek hartutako erabakien aurka tarteratutako errekursoak aztertuko ditu.

Gaien arabera espezializatutako panel judizialen talde batek gaiak aztertuko ditu, erantsitako itunek eta Justizia Auzitegiaren eta Lehen Auzialdiko Auzitegiaren Estatutuak eta prozedura arauak zehaztutako baldintzetan. Beren erabakien aurka, errekurso bat tarteratu ahal izango da Lehen Auzialdiko Auzitegiaren aurrean.

1. Saila

Justizia Auzitegia

86. artikulua. Justizia Auzitegia epaileek eta abokatu nagusiek osatuko dute. Zeregin judizial gorenak betetzeko gaitasuna daukaten eta beren independentzia bermatuta daukaten profesionalen artean aukeratuko dira. Bederatzi urterako izendatuko dira, eta ezin izango dute beren agintaldia berritu. 9 epailez osatutako bilkuretan ebatziko dituzte auziak, edota 5 edo 3 epailez osatutako aretoetan. Salbuespen gisa, trazendentzia konstituzionala daukaten gaietan, epaile guztiek osatuko dute Osoko Bilkura.

Justizia Auzitegiko kideen kopurua, Federazioko Estatu kideen bera izango da. Ministroen Kontseiluak izendatuko ditu bertako kideak. Hiru urtero berrituko dira, partzialki. Justizia Auzitegiko kideek hiru urteko eperako aukeratuko dute beren presidentea, behin bakarrik berritu ahal izango duela agintaldia.

Abokatu nagusien kopuruak ezin izango du Justizia Auzitegiko kideen laurdena baino handiagoa izan. Lotesle ez diren ondorioak aurkeztuko dituzte, eta Justizia Auzitegian eztabaidari ekingo diote bilkurei esleitutako gaietan, edota jurisprudentzia komunitarioak berriak diren gaietan edo koherentzia handiagoa eskatzen dutenetan.

87. artikulua. Justizia Auzitegiak Batzordeak edo Estatu kide batek Zuzenbide komunitarioa ez betetzeagatik beste Estatu kide edo bere erregio bat edo batzuen aurka tarteratutako errekursoak aztertuko ditu. Justizia Auzitegiak Estatu kide ez-betetzalea kondenatzen badu, honek Justizia Auzitegiaren erabakia betetzeko beharrezko diren neurriak hartu beharko ditu. Ez-betetzen jarraituko balu, Batzordeak errekurso berri bat tarteratu ahal izango du, zehapen bat proposatuz.

Justizia Auzitegiak Federazioko erakunde edo organoek eskuduntza gabezia, formazko funtsezko akatsak, Zuzenbide komunitarioaren

urrapena edo boterearen desbideraketari dagokienez hartutako maila orokorreko tresna juridikoen legezkotasun edo konstituzionaltasuna kontrolatuko du. Errekurtsioa tarteratu ahal izango dute Estatu kideek, Europako Parlamentuak, Ministroen Kontseiluak edota Europako Batzordeak, legezkotasun komunitarioaren defentsan, edota Botere Erregional eta Lokalen Ganberak edota afektaturiko erregioek, Ganberaren prerrogatibak inplikaturik daudenean, edota errekurtsioaren objektua erregio afektatuen eskuduntzak eta subsidiariotasun printzipioaren defentsa direnean.

Justizia Auzitegiak erregelamendu eta erabakien legezkotasun edo konstituzionaltasuna kontrolatuko du, eta, oro har, Federazioko erakunde edo organoek eskuduntza gabezia, formazko funtsezko akatsak, Zuzenbide komunitarioaren urrapena edo boterearen desbideraketari dagokienez hartutako maila indibidualen tresna juridikoa. Errekurtsioa tarteratu ahal izango dute Estatu kideak, erakundeak eta partikularrek, zuzenean eta indibidualki afektaturik badaude, edo interes zuzen bat daukatela frogatzen badute.

Justizia Auzitegia izango da Federazioko erakundeak partikularrei sortutako kalteengatik kalte-ordainen inguruko auziak ezagutzeko eskuduna.

Justizia Auzitegiak eskuduntza izango du epaiketa aurretik ebazteko Konstituzio honen eta berari erantsitako Itunen interpretazioari buruz, eta Federazioko erakundeak edota Europako Banku Zentralak hartutako tresna juridikoen interpretazio eta baliozkotasunari buruz. Epaiketa aurreko kuestioa aurkeztu ahal izango du Zuzenbide komunitarioa aplikatu behar duen Estatu kideetako edozein organo jurisdikzionalak. Beren erabakien aurka errekurtsioak tarteratu ezin den goi organoek, epaiketa aurreko kuestioa planteatzeko betebeharra daukate.

Justizia Auzitegiak eskuduntza izango du tresna juridiko komunitarioak hartu baino lehen Estatu kideen arteko edo beren erregioen eta Federazioko erakundeen arteko, edo azken hauen arteko eskuduntza banaketan inguruko gatazkak ebazteko, edo subsidiariotasun printzipioaren aplikazioaren ingurukoak. Estatu kideak eta beren erregio konstituzionalak legitimatuta egongo dira beren prerrogatibak Justizia Auzitegiaren aurrean defendatzeko.

2. SAILA

Lehen Auzialdiko Auzitegia

88. artikulua. Lehen Auzialdiko Auzitegia, Estatu kideak adina epailek osatuko dute. Lehen Auzialdiko Auzitegiaren jurisdikzioa eta Justizia Auzitegiaren aurreko errekurtsioen baldintzak, Justizia Auzitegiaren Estatutuan finkatuko dira.

Lehen Auzialdiko Auzitegiak erakunde edo organo komunitarioek emandako egintza administratiboen baliozkotasuna kontrolatuko du, tarteratzaileak direnean egintza horien hartzaileak edo egintza horiek zuzenean eta indibidualki afektatzen dituzten beste pertsona batzuk, edota Federazioko erakunde edo organoak, edota egintza horiek afektatzen dituzten Estatu kideak eta erregioak.

Lehen Auzialdiko Auzitegiak eskuduntza izango du Justizia Auzitegiari akordioan edo konbentzioen bidez esleitzen zaizkion gaietan.

Lehen Auzialdiko Auzitegiak panel jurisdikzionalak finkatu ahal izango ditu, funtzio publiko komunitarioa, sailkapen aduaneroa, marka komunitarioak edo Justizia Auzitegiaren Estatutuak esleitzen dizkion beste gaiak aztertzeko.

6. KAPITULUA

Kontuen Auzitegia

89. artikulua. Kontuen Auzitegia osatuko dute Estatu kideetako edo beren erregioetako kontuen auzitegietan esperientzia handia duten 20 kidek, beren funtzioak betetzen independenteak izango direnak. Auzitegi honek Federazioko sarrera eta gastuen kudeaketa eta exekuzioa zuzenak izateaz arduratuko da, eta transakzioak erregularak izateaz. Federazioaren eta bere erakunde, organo eta agentzien kontu eta aurrekontu guztiak auditatuko ditu.

Kontuen Auzitegia independentea izango da. Bere zeregin eta prerrogatibak bere barne erregelamenduan zehaztuko dira. Kontseiluak izendatuko ditu bere kideak, sei urteko eperako, eta berriro egin ahal izango dute beren agintaldia.

7. KAPITULUA

Ekonomia eta Gizarte Lantaldea

90. artikulua. Ekonomia eta Gizarte Lantaldea, legegile komunitarioak gizarte zibil europarrari kontsulta formala egingo diola ziurtatzen duen organoa da.

Ekonomia eta gizarte sektore ezberdinak 250 ordezkariak osatuko dute; batez ere langileen, enplegatzaileen, ekonomia sozialaren,

kontsumitzaileen, boluntarioen eta gobernuz kanpoko erakundeen ordezkariak.

Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak loteslea ez den txosten bat eman- go du prozesu legegile komunitarioan eta koordinazio politikoko proze- duran, barne merkatuarekin, gizarte eta hezkuntza politikekin, garraio politikekin eta ingurumen politikekin lotutako arloetan. Politika ekonomi- koaren ildo nagusiei buruzko irizpen espezifiko bat emango du, eta baita ere enplegurako estrategiei, bazterketaren aurkako borrokari, eta Informazioaren Gizartearekin lotutako gai guztiak buruz.

Bere ekimenez, irizpena eman ahal izango du bere iritzian garrantzi- suak diren eta kontsultatu ez zaizkion gaiak buruz.

Bere kideak Europako Parlamentuak izendatzen ditu, Ministroen Kontseiluaren proposamenari jarraiki, bost urteko eperako, eta indepen- dienteak izango dira beren zereginak gauzatzeko.

Federazioko Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak Estatu kideetan eta beren erregioetan dauden pareko Batzorde aholku emaleekin lankide- tza sustatuko du, eta nazioarte mailan dauden antzeko organismoekin.

8. KAPITULUA

Europako Arartekoa

91. artikulua. Europako Parlamentuak Ararteko bat izendatuko du, edozein hiritar europarrak edo Estatu kide batean bizi edo egoitza soziala duen edozein pertsona fisiko edo juridikok erakunde edo organo komunitarioen ustezko administrazio txararen inguruan egindako erre- klamazioak jasotzeko. Ezin izango da erreklamazioak aurkeztu Justizia Auzitegiaren aurka, bere funtzio jurisdikzionala gauzatzeko inguruan.

Arartekoak errekurtsioa tarteratu ahal izango du Justizia Auzitegiaren aurrean Federazio Europarreko erakunde, organo, Estatu kide edo erregio baten aurka, Konstituzio honetako 1. Tituluko 2 eta 3. kapituluaren aurre- kusitako eskubideren bat errespetatzen ez duela iruditzen zaionean.

Europako Arartekoa Estatu kideetako eta beren erregioetako ararte- koekin koordinatuko da, Zuzenbide komunitarioaren aplikazioaren eta jardueren administrazioak hiritarrengan duen eragina monitorizatze- ko, eta gobernantza europarra hobetzeko gomendioak egingo ditu.

Lege europar batek arautuko ditu Arartekoaren funtzionamendua eta Estatu- eta erregioetako arartekoen arteko koordinazioa.

9. KAPITULUA

Batasuneko finantza organoak

92. artikulua. Banku Zentralen Europako Sistema (BZES) osatuko dute Europako Banku Zentralak eta Estatu kideetako Banku Zentraletako presidenteeak.

Europako Banku Zentraleko organo erabakitzaileek gobernatuko dute BZES.

BZESren zeregina, prezioen egonkortasuna mantentzea da. Horretarako, BZESk Federazioaren diru politika finkatu eta implemen- tatuko du, dibisa kanbioen eragiketarako exekutatu dituen, Estatu kideen dibisen erreserba ofizialak kudeatuko ditu, eta ordainketa sistemak arin funtzionatzea sustatuko du.

93. artikulua. EBZk euroa jaulkitzea baimentzeko eskubide esku- siboa izango du. Gobernu kontseilu bat izango du, batzorde exekutiboa eta Estatu kideetako banku zentraletako gobernadoreen ordezkari- tza bat bilduko dituen, eta baita ere gai ekonomikoetarako arduratzen den Batzordeko presidenteordea eta 25 milioi biztanlelik gora dauzkaten edota Federazioaren BPGren %10 baino gehiago duten Estatu kideeta- ko gobernadore zentralak.

Batzorde exekutiboa osatuko dute EBZko presidenteeak (Ministroen Kontseiluak Batzordearen proposamenari jarraiki izendatua), presiden- teordeak eta lau kide gehiagok, hauen artean gai ekonomikoetarako Batzordeko presidenteordeak egon beharko duela.

Beren zeregin eta prerrogatibak betetzerakoan, ez EBZk, ez bere kideek, ez bere egiturak, ezin izango dute Estatu kideen ez beste inol- ko organoren jarraibiderik jaso.

94. artikulua. Europako Inbertsioen Bankuak (EIB) nortasun juri- diko izango du.

Estatu kideak izango dira EIBko kideak.

EIBk, Federazioaren interesen alde, barne merkatuaren garapen ore- katu eta egonkorra sustatuko du, horretarako mailegu zein bermeak ema- nez eta merkatuetara zein bere baliabideetara joz, irabazteko xederik gabe.

Atzeratuen dauden erregioen garapenerako, enpresak modernizatu edo birmoldatzeko, edo barne merkatua eta ezagutzen oinarritutako ekonomia ezartzen lagunduko duten jarduerak berriak sortzeko proie- ktuak finantzatzen lagunduko du.

Inbertsiorako programak finantzatzen lagunduko du, Federazioaren egiturazko fondoen ekintzekin eta beste finantza tresna batzuekin batera.

IV. TITULUA

Erabakiak hartzeko prozedura

1. KAPITULUA

Finantza tresnak

95. artikulua. 1. Federazioaren finantza erregimena, 96. artikuluan aurreikusitako prozedura jarraituz onartuko den lege europar batean jasoko da.

2. Aurrekontu legeak urtero onartuko dira, aipaturiko legearen eta Konstituzio honetan zein berari erantsitako Itunetan jasotako xedapenen arabera.

3. Federazio Europarraren aurrekontuak orekatuta egon beharko du sarrera eta gastuei dagokienez, eta baliabide propioekin finantzatu da oso-osorik. Batzordeak, Ministroen Kontseiluak edota Parlamentuak proposaturiko finantza neurri orok, baliabide propioen mugen barruan finantzatzeko modukoa izan beharko du.

4. Batzordeak sarrera eta gastuen aurreikuspena jasoko duen aurrekontuaren aurreproiektua prestatuko du. Horretarako, erakunde eta organo bakoitzaren aurrekontuaren aurreproiektuaren proposamenak jasoko ditu. Aurreproiektua, aurrekontua dagokion ekitaldiaren aurreko urteko irailaren 1ean aurkeztuko zaio Ministroen Kontseiluari.

Ministroen Kontseiluak, Batzordearekin koordinatuta, Aurrekontu proiektua prestatuko du, eta bere exekuzioaren aurreko urteko urriaren 5a baino lehen Europako Parlamentuari bidaliko dio.

Europako Parlamentuak, 45 eguneko epean, gehiengo absolutuz emendakin eta aldaketak proposatu ahal izango ditu. Aurrekontua onartu ere egin ahal izango du, gehiengoz absolutuz, eta horrela behin betiko onartutzat joko da.

Ministroen Kontseiluak, 15 eguneko epean, Batzordearekin koordinatuta, bi hereneko gehiengoz atzera bota ahal izango ditu proposamenak, edota Parlamentuak egindako proposamenei jarraituz proiektua aldatu. Parlamentuak aurkeztutako emendakinak onartu, edota atzera botatzetik edo aldatzetik abstenitu ere egin ahal izango du, eta horrela Aurrekontua behin betiko onartutzat joko da.

Ministroen Kontseiluak, Parlamentuaren proposamenak atzera bota edo aldatzekotan, Europako Parlamentuari itzuliko dio proiektua. Honek, 15 eguneko epean, emandako botoen bi hereneko gehiengoz eta osatzen duten kideen gehiengoz, Ministroen Kontseiluak bere emendakinei egindako aldaketak onartu, emendatu edo atzera bota ahal izango ditu, eta aurrekontua behin betiko onartuko du. Salbuespen gisa, eta gehiengo horrekin berarekin, aurrekontu proiektua atzera bota eta berri bat egin dadila eskatu ahal izango du.

Aurrekontu ekitaldiari hasiera ematean aurrekontua oraindik bozkatu gabe balego, gastuak hilerio egin ahal izango dira aurreko ekitaldiko aurrekontuan zehaztutako kredituen hamabirenaren mugen barruan.

2. KAPITULUA

Tresna legegileak

96. artikulua. 1. Lege europar batek garatuko du zein prozedura jarraituko den lege eta direktiba europarrak eta garatzeko erregelamenduak onartzeko, Konstituzio honen eta berari erantsitako Itunen xedapenekin bat etorritik.

Batzordeak proposamen bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Estatuon Ganberari, eta, subsidiariotasun printzipioari edo eskuduntza legegile erregionalak dauden eskuduntza elkarbanatuei buruzko kasuetan, baita Botere Erregional eta Lokalen Ganberari ere. Dagokion kasuetan, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari proposamen honen berri emango zaio, eta 45 eguneko epean irizpen ez-lotesle bat emango du.

Europako Parlamentuak, bi hilabete epean, eta emandako botoen gehiengo absolutuaz, irizpen bat emango du, eta Estatuon Ganberari bidaliko zaio. Irizpen horretan, Parlamentuak, bere kideen bi hereneko gehiengoz, proiektua atzera bota ahal izango du. Kasu horretan, proiektua baztertutzat joko da, eta Batzordeak proposamen berri bat aurkeztu ahal izango du. Emandako botoen gehiengo absolutuz, aldaketak edo emendakinak egiteko proposamenak aurkeztu ahal izango ditu.

Hilabete bateko epean, Estatuon Ganberak posizioatu egin beharko du Parlamentuaren irizpenaren aurrean. Proposamenak gehiengo absolutuz onartu ahal izango ditu, edo Estatuon eta biztanleen gehiengo bikoitzaz atzera bota.

Horrela emendaturiko proiektuak erregioen eskuduntzei, subsidiariotasun printzipioari edota eskuduntzen banaketari buruzko zalantzak sortuko balitu, Botere Erregional eta Lokalen Ganberari bidaliko zaio, hilabete bateko epean irizpen bat eman dezan Erregio Konstituzionalen Ganbera modura. Honek proiektua atzera bota ahal izango du bere kideen bi hereneko gehiengoz; kasu honetan, Batzordeak, irizpen hori kontuan izanik,

proposamen berri bat aurkeztu beharko du. Erregio Konstituzionalen Ganberak emendakinak aurkeztu ahal izango ditu, bere kideen gehiengo absolutuaz. Emendaturiko proiektua Estatuon Ganberari bidaliko zaio, eta honek, hilabete bateko epean, Erregio Konstituzionalen Ganberaren irizpena atzera bota ahal izango du, edota Estatuon eta biztanleen gehiengo bikoitzaz emendakin zehatzak atzera bota edo aldatu.

Estatuon Ganberak Europako Parlamentuari bidaliko dio proiektua, eta honek hilabete bateko epean, aldatu egin ahal izango ditu Estatuon Ganberak eta Erregio Konstituzionalen Ganberak sartutako emendakinak, emandako botoen bi hereneko gehiengoz.

Parlamentuak emendaturiko proiektua Estatuon Ganberari itzuliko zaio, eta honek onartu egin ahal izango du bere botoen gehiengoz, edota atzera bota bere botoen eta biztanleen bi hereneko gehiengo bikoitzaz. Atzera botatzekotan, Batzordeak proposamen berri bat aurkeztu beharko du.

2. Erabakiak erakunde eskudunek beren barne erregelamenduen arabera hartuko dituzte, eta hartzaileei zuzenduko zaizkie.

3. Erregelamenduak Batzordeak onartuko ditu, Europako Parlamentuak eta Ministroen Kontseiluak delegatutako eskuduntzen mugen barruan.

3. KAPITULUA

Koordinatzeko tresnak

97. artikulua. Estatu kideen eta beren erregioen politikak koordinatzeko tresnak hartzeko prozedura 96. artikuluan aurreikusitako prozedura jarraituz onartuko den lege europar batean garatuko da. Bertan, Botere Erregional eta Lokalen Ganberak hartuko du parte.

Koordinatzeko ekimena eta tresnaren aukeraketa Batzordearen esku egongo dira. Batzordeak jardun ahal izango du edo bere ekimez, edo Kontseilu Europarrak, Europako Parlamentuak, Ministroen Kontseiluak edota Botere Erregional eta Lokalen Ganberak eskatuta.

Ministroen Kontseiluak, bi hilabete epean aldaketak sartu ahal izango ditu proposamenean gehiengo absolutuaz, edota proposamena gehiengo sinplez onartu.

Kasu horretan, proposamena Europako Parlamentuari bidaliko zaio, eta honek, hilabete bateko epean, aldatu egin ahal izango du emandako botoen bi hereneko gehiengoz.

Proposamena Botere Erregional eta Lokalen Ganberari bidaliko zaio, eta honek, hilabete bateko epean, atzera bota ahal izango du bere kideen bi hereneko gehiengoz, baldin eta iruditzen bazaio erregioen eskuduntzak urratu edo inbaditu direla, edota koordinazio prozesuan erregioak ez direla kontuan hartu. Botere Erregional eta Lokalen Ganberak aldaketak iradoki ahal izango ditu gehiengo absolutuz. Koordinatzeko tresnak ez badie erregioen eskuduntzei eragiten, loteslea ez den irizpena gehiengo sinplez emateko epea bi hilabetekoa izango da.

Ministroen Kontseiluak aldatu edo atzera bota ahal izango ditu Europako Parlamentuak eta Botere Erregional eta Lokalen Ganberak egindako proposamenak, bere botoen eta biztanleen gehiengo bikoitzaz.

V. TITULUA

Azken Xedapenak

1. KAPITULUA

Berrikuspena

98. artikulua. Europako Parlamentuak eta Ministroen Kontseiluak, beren botoen bi hereneko gehiengoz, Konstituzio hau edo berari erantsitako Itunak erreformatzeko beharra dagoela erabaki hartu ahal izango dute.

Kontseilu Europarrak Konstituzio honen edo berari erantsitako Itunen berrikuspen puntuala onartuko du. Horretarako, bere kideen eta Federazioko biztanleen bi hereneko gehiengoz hartuko ditu bere erabakiak.

Konstituzio honen erreforma garrantzitsu bati ekiteko, Konstituzio hau proposatzera eraman duen Europaren Etorkizunerako Konbentzioak erabili duen metodologia erabiliko da. Prozesu horretan, Botere Erregional eta Lokalen Ganberak ere parte hartuko du. Zalantza kasuan, Kontseilu Europarrak Justizia Auzitegiari bere iritzia eskatuko dio Konbentzio Europarra biltzeko deia egitearen beharraren inguruan.

2. KAPITULUA

Eremua, nortasuna eta ofizialtasuna

99. artikulua. Konstituzio hau, Europar Batasuneko Estatu kideen bi hereneko barne berrespenerako metodoak jarraituz berresten dutenean sartuko da indarrean.

Konstituzio hau indarrean sartzean errebokatu egingo da Europako Batasunaren Ituna, eta Federazio Europarrak nortasun juridikoa eskuratuko du.

Europako Erkidegoa Eratzeko Ituna eta Atomo Energiaren Europako Erkidegoa Eratzeko Ituna aldatu eta bateratu egingo dira, eta Konstituzio honi eranskin gisa txertatuko zaizkio. Europako Esparru Ekonomikoa ezartzen duen Ituna beharrezkoa den heinean aldatuko da, eta Konstituzio honi eranskin gisa txertatuko zaio.

Konstituzioa eta berari erantsitako Itunak epe zehaztugabe baterako onartzen dira.

Konstituzio honetan jasotakoa kontraesaten ez duen heinean, araudi komunitario guztiak indarrean jarraituko du.

Konstituzio hau Estatu kideetako eta beren erregioetako hizkuntza ofizial guztietan izango da ofizial.

Federazioaren hizkuntza ofizialak, Estatu kideetan ofizial diren hizkuntzak izango dira. Lege batek zehaztuko du zeintzuk izango diren Federazioko erakunde eta organoen lan hizkuntzak, eta hiritar europarrek zein hizkuntza eskubide izango dituzten erakunde edo organo horiekin harremanetan jartzean. Betiere, berdintasun printzipioa bermatu beharko da.

Konstituzio hau eta berari erantsitako itunak Estatu kide guztietan aplikatuko dira, eranskinean zehazten diren itsasoz haraindiko lurralde berezietan izan ezik.

3. KAPITULUA

Geometria aldakorra

100. artikulua. Konstituzio honetan jasotako printzipioak errespetatzen dituen Estatu europar orok Federazio Europarrean sartzea eskatu ahal izango du, Kontseilu Europarrari eskari bat zuzenduz. Kontseilu Europarrak Europako Batzordeari bere iritzia eskatuko dio, eta honek txosten bat emango du. Eskariaren erantzuna Ministroen Kontseiluak eta Europako Parlamentuak elkarrekin erabakiko dute.

Konstituzio honek onartzen ditu barne zabalkunde prozesuak, Estatu kideetatik Estatu kide berriak sortzeko. Estatu kide berriek beren barne prozedura konstituzionalen arabera berrestu beharko dute Konstituzio hau.

Konstituzio hau berresten ez duten Europar Batasuneko Estatu kideak ez dira Federazio Europarreko kide izango. Europako Esparru Ekonomikoko kide izan ahal izango dute, dagokion Itunaren erreforman adierazitako baldintzetan.

AMAIA

II. ZATIA

ERANTSITAKO ITUNAK

1. Europako Ekonomia Erkidegoa eratzeko Ituna (Konstituzio hau kontuan hartzeko erreformatua, eta EB Ituneko Kanpo Politikari, Segurtasun Bateratuaren Politikari, Justiziar eta Barne Gaiei buruzko xedapenak barnebiltzen dituena, Konstituzioa kontuan hartzeko aldatu direnak, eta Atomo Energiaren Europako Erkidegoa sortzen duen Itunarekin bateratua).

Desagertu egin dira xedapen orokorrak, eta mantendu egin dira xedapen material guztiak: III. zatia.

IV. Zatia erreformatu egin beharko litzateke, eta Konstituzioari bere aplikazio lurraldetarrari buruzko Eranskin gisa txertatu.

V. Zatik II. titulua, finantza xedapenak jasotzen dituen, lege europar batera pasako litzateke.

Sail hau, Itun gehigarri baten bidez garatu beharrean, Konstituzioaren Bigarren Zatia izango litzateke, Prodi presidentearen zirraborro konstituzionalak proposaturiko Batasuneko Politiken bateratzea bezala.

2. Europako Esparru Ekonomikoa sortzen duen Ituna.